

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-10-11
EGUENA
525. ZENBAKIA
12. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

SketchCrawl: kalera irten eta maraztu

Marraskilari topaketa
izango da Bergaran | 26



PILIRENKOADERNOA.BLOGSPOT.COM

Chirlaque bergararrak Bilboko banda
zuzenduko du Euskaldunan | 15



Denda guztiz jasagarria ireki
du Eroskik Oñatin | 5



Oñatiko Errosaixo Bixamonako
argazki bilduma ikusgai | 14



AZPIAZUREN ONDAREA SUITZATIK OÑATIRA

600 kilo baino gehiago, milaka partitura, argitaletxeetan kaleratutakoa eta argitaratu ez dena, guztiak originalak, liburutegi osoa...horixe da datutan Jose de Azpiauren ondarea, Suitzatik Oñatira ekarri dutena. Altxorra dute orain, beraz, agustindarren artxiboan, Jose de Azpiazu sortzaile eta maisuaren garrantzia kontuan hartuta. | 24

Lupe de Azpiazu, aitek kartzelan egindako gitarra eskuan duela, agustindarretako artxiboan. | MAIDER ARREGI

Arrasate-Oñati proba, 'denboraldia' hasteko

Egubakoitzean
22:00ak arte eman
ahal da izena | 22



Lasterkariak Portaloian. | X.U.

Onenekin jokatuko du Antzuolako Mendizabalek | 21

"Laguntza bariko etorkizuna aurreikusten dugu Idazle Eskolan"



Tere Irastortza
Idazle Eskolako zuzendaria | 9

SINADURAK

	AITOR BIANI 8
	8 MIRARI ALTUBE
	MARIJO PAGALDAI 17
	18 ANTONIO DEOGRACIAS
	AINZANE OIARBIDE 32

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 5 | IRITZIA 8 |
ELKARRIZKETA 9 | HERRIAK 10 | KIROLA 21 |
KULTURA 24 | ZURE IRAGARKIAK 27 |
TELEBISTA-IRRATIA 28 | EZKONTZAK 29 |
ESKELAK 29 | NON-ZER 30

943 71 48 45

Hemen

GARBIKETAK

www.hemen-garbiaketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak,
obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiaketak.com

IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Abertzaleen eta ez abertzaleen aldea, inoiz baino ageriago

- ▶ Alderdi abertzaleek nazionalismoen indarrak aldarrikatzen dituzte
- ▶ Ez abertzaleendako, berriz, nazionalismoak arriskutsuak dira

UBANE MADERA | ARRASATE

Urriaren 21eko Legebiltzarrerako hauteskundera begira, Debagoienean ordezkari nagusia duten alderdien hautagaiei euren ildo nagusiak azaltzeko eskatu diegu. EH Bildu, EAJ, PSE-EE, Ezker Anitza-IU eta PP izan ditugu, bada, jomuga. Azken horrek, PPK, baina, denbora eza argudiatuta, ez dio erantzun GOIENAREN elkarrizketari.

Gainontzekoei dagokienez, berriz, lau alderdiek murrizketen kontra egiten dute, osasunaren eta hezkuntzaren alde, eta oro har, gizarte ongizatearen defen-

DATUA

20
UNITATEA

20 alderdi aurkeztuko dira urriaren 21eko hauteskundeetara: 13 hiru lurralde historikoetarako, eta gainontzeko zazpi horietakoren batean. 2009an baino zazpi gehiago dira.

tsa agintzen dute.

Autonomia vs independentzia

Hortik haratago, alderdi abertzale eta ez abertzaleen arteko desberdintasunak sekula baino ageriago geratzen dira Euskal Autonomia Erkidegorako dituzten planteamendu politikoetan.

Hasteko, EH Bildu koalizioak zein EAJk argi dute gaur egun EAEk duen autonomia maila gaituzte egin behar dela. Lehenak, baina, "erlaldaketa politiko sakona" sorrarazi gura du eta ildo horretan, independentzia aipatzen du esplizituki, eta berak dioen

Ongizatearen defentsa alderdi guztiek agintzen dute

EAEren autonomia maila ere izango da jokoan

moduan, gainera, "bakarra" da hori egiten.

Bigarrenak, berriz, euskal nazioa bai, baina *independentzia* berba ez du erabiltzen. Horren ordezkari Estatutu Politiko Berria eta Kontsulta Legea aldarrikatzen ditu marko politiko berri batearako bidean.

Horrez gainera, bien arteko lehian, EAJk orain arte egindako bidea, euren eskarmentua jartzen du berme moduan eta EH Bildu koalizioak, berriz, "desberdinak" direla aldarrikatzen du, besteak beste, esanaz "edukietan eta izapideetan" izan nahi duela diferente.

Nazionalismoen "arriskua"

Alderdi ez abertzaleen artean, berriz, PSE-EEK Kataluniaren egoera ekonomikoa nazionalismoaren arriskuen eredu moduan jartzen du, eta horren parean Euskadiren oraingo autogobernua aldarrikatzen du.

Ezker Anitza-IU, berriz, ezker-tiarren artean ezkerren lerratzen da, sistemaren kontra erabat eginez. Diote eurak ez lirakeela sistemaren parte izan beharko.



XABIER ISASI

Irakaslea
56 urte | Deustu, Bizkaia

Xabier Isasi | Euskal Herria Bildu

"Aspaldian egon ez den moduko koalizioa gara"

U.M. | ARRASATE

Gipuzkoako zerrendaburua da Xabier Isasi. Lanbidez irakaslea: EHUn Psikologia eta Estatistika irakaslea, UEUko zuzendari eta Gaindegia behategiko lehendakaria izandakoa, politikan hasi arte.

Zertan datza EH Bildu koalizioak iragartzen duen desberdintasuna?

Aspaldian egon ez den moduko koalizioa da. Zerrendaburuak ohiko politikagintzatik etorritakoak baino gehiago, irakaskuntza eta unibertsitatean urte asko eman ondoren, konpromisoak eraman ditu politikara. Gainerako hautagai gehienek, guztiek ez esatearren, jarduera politikoa dute lanbide. Geroko gure engaiamendua da eraldaketa politiko sakona sorraraztea. EH Bildu da independentzia esplizituki aipatzen duen bakarra, lurraldearen garapen eredu desberdina. Edukietan eta izapideetan izan nahi genuke diferente, baina besteak ere diferente egiten gaituzte baztertu nahi gaituztenez.

Onartzen ditugu politika joko-arrak, baina ez du esan nahi gainerakoen modukoak garenik.

ETA bako hauteskundera mesede egiten dizue abertzaleei?

Eragiten du, baina ez da arrazoi bakarra boto emaileak alderdi nazionalistara eta abertzalera hurbiltzeko. Programa eta atxikimenduen arabera ematen dute botoa. Lehen zioten ETAREN jarduera armatua alderdi abertzaleentzako onuragarria zela, eta orain esaten dute ETAK jarduera armatua utzi izanak alderdi abertzaleei mesede egiten diola. Ez, herritar asko eta asko irrikan dago bere boza independentzia eta askatasunaren alde eman ahal izateko. Gainera, hauteskundera aukera politiko guztiek parte hartzen dutela nabarmendu behar da. EH Bildu prest dago gobernuaren ardura hartzeko gehiengoak horrela eskatuz gero. **Burujabetza eta independentziarako bidea hartuko duzue?**

Bai, Euskal Herria helburu. Munduan eta Europan bereziki, esta-

turik gabeko nazio txikiak aukera irekitzen ari da. Datorren legealdian aldaketa esanguratsuak iragarri daude. Quebec, Eskozia, Flandes eta Katalunia dira adibidetako batzuk. Euskal Herriak lerratu behar du askatasuna bilatzen duten nazioen artean. Bakoitzak berezitasunak dauzka. Baina batera gertatzeak indarraldia dakar. Lehendakari gure eskutan harturik edo gabe, seguru gaude hurrengo legealdia burujabetasunaren legealdia izango dela.

EAJ/Bildu izango da lehia; posible da EAJrekin gobernu?

Guztiek hitz egiteko prest gaude. Eta akordiorako betarik balego saiatuko ginatke. Beti ere, kontuan

"Geroko gure engaiamendua da eraldaketa politiko sakona sorraraztea"

hartuz burujabetasunak beharko lukeela gobernu berriaren iparratza. Gainontzekoei dagokienez, burujabetasuna eta ereduaren aldatetaren bidean baldintza egokiak adostuz gero, zergatik ez? Arazoa da PPK eta PSE-EEK iragarri dutela ez dutela gurekin itunik egingo. Dena den, edozein paktu aztertzeke, zertarako izango dugu kontuan.

Zer planteatzen du EH Bilduk krisi bortitz honi aurre egiteko?

Pertsonak eta justizia soziala. Hori da jarduera ekonomikoen pizgarria. Esklusio soziala eta bazterkeriak kaltetzen dute ekonomia. Lan-jarduna murriztu, enplegua banatu, ikerkuntza eta berrikuntzan inbertitu, ekonomia berdea sustatu, kalitatezko enplegua sortu eta pribilegioak murriztu. Baita zerga-politikoak aldatu, Gipuzkoan aldatzen ari gara, gehien duenak gehiago ordain dezala; eta iruzur fiskala zorrotz murriztu. Konbentzitu gaude burujabetza krisi ekonomikoa gainditzeko bide eraginkorra dela.

Eta Debagoienarako?

Gipuzkoan, Debagoiena da ekonomiaren garapenerako ezinbesteko erreferentzia. EH Bilduk eskatzen dio erreferentzia izaten jarrai dezala. Babesa eta laguntza bilatzeko prest gaude.

ehbildu

BERBA BITAN

Justizia soziala

"Krisiari aurre egiteko pertsonak eta justizia soziala iparra izan behar dira (...) Eta konbentzitu gaude burujabetza ere krisia gainditzeko bide oso eraginkorra dela".

independentzia

Urriak 13, 17:30ean BARAKALDON EKITALDI NAZIONALA

BOZKATU **ehbildu**



Joseba Egibar | EAJ

"Gure egitasmo abertzalea solidarioagoa da"

UBANE MADERA | ARRASATE

Joseba Egibar andoaindarra Gipuzku Buru Batzarreko presidente eta EAJko bozeramailea da Legebiltzarrean.

Indartsu dator EAJ kanpainan...

Bai; *indartsu*-k esan nahi du sendo gaudela eta egitasmoa daukagula herria lideratzeko.

Ajuria Enea berreskuratzeko aukera handiak dituzuela diote kiniekek...

Inkestak inkestak besterik ez da. Bilatzen dutena da jendeari bidea erakustea eta, EAJren kasuan, gure aldekoak lozorroan geratzea, botorik eman gabe. Benetako inkesta urriaren 21ekoa da. Hurrengo urteetan herri hau EAJ-PNVk lideratzea nahi duenak botatzera joan eta EAJren botoa sartu behar du.

ETA ez egoteak mesede egiten dizue nazionalistei?

Gu euskal nazioan sinesten dugun abertzaleak gara. ETAren mehatxurik ez izatea guztiontzako da ona, eta, jakina, baita abertzaleontzako ere, hemendik aurrera buka-

tu baita euskaldunoi etorkizuna erabakitze eskubidea ukatzea, ETAren indarkeriaren aitzakian.

EAJ-Bildulehia ikustenda. Zedu EAJk eskaintzeko Bilduk ez duena?

Sinesgarritasuna. Egindako bidea nahiz egitasmo ekonomiko eta politikoa dira EAJren bermea. Ezker abertzaleak dio gobernatzeko ez daukala ez planen ez egitarauen beharrik. Aldiz, EAJk hazkunde ekonomiko orekatua eskaintzen du, Garaikoetxea, Ardantza eta Ibarretxeren gobernuak bezala; horri esker gaude ingurukoak baino askoz baldintza hobean eta hala atera izan gara aurrera egoera zail askotan. Eredu honen bidez gaindituko dugu krisialdia, inor bide

bazterrean utzi gabe. Erakutsi dugu gurea bezalako egitasmo abertzalea, indartsuagoa ez ezik, solidarioagoa ere badela.

Eta ikuspegi politikoan?

35 urteotako kontu ematen badugu, argi dago ezker abertzalearen estrategia politiko-militarrak ez gaituela hurbildu aipatzen duten estatu soberanora; alderantziz, Euskal Herriaren askatasuna atzeratu besterik ez du egin. Gatazka konpontzen aritu beharrean, gabiltza borroka armatuaren ondorioei aurre egiten, biktimen eta presoen egoerei. EAJk beti esan du bide politiko eta demokratiko hutsek bakarrik balio zutela. Bestetik, Estatutu Politikoa Berria eta Kontsulta Legea dira EAJren bermeak ziurtatzen dutenak gai garelako marko politiko berri baterako bidea gidatzeko, Euskadi herri gisa aitortuz eta bere erabakitze eskubidea onartuz.

Elkarrekin gobernu osatzeko gertu zinatekete?

Emaitzak jakin behar dira; gero, akordiotara iristen saiatzean, EAJk

**JOSEBA EGIBAR**

Udal funtzionarioa

53 urte | Andoain

**BERBA BITAN****Hazkunde orekatua**

"EAJk eskaintzen duen hazkunde ekonomiko orekatuari esker gaude ingurukoak baino askoz baldintza hobean, eta hala atera izan gara aurrera egoera zail askotan"

bere egitaraua aurkeztuko du, bi ardatzekoa: politikoa eta soziala eta ekonomikoa. Dena dela, ezker abertzalearekin gobernatzeko, elkarri begirunea izanez eraiki behar dugu harremana, elkar errespetatuz. Kultur desberdinetatik gatzoz eta luzaroegi elkarren aurka ibili dira bi kultura hauek.

Eta PSE-EErekin?

Sozialisten eta PPren norabideak ikusita, ezinezkoa dirudi, euskal berezitasunaren aurka bat etorri direnekin. Ez dago ahazterik estatu-arrazoiak batu dituela -euskal izaera berezia desegin nahirik.

Krisiaren aurrean zer egin lezake EAJk gobernutik?

Lopez gobernuak zamak utziko dizkigu: zorra, bederatzi aldiz biderkatu dutena, eta defizita, baimendutakoaren bikoitza, eta finantza-karga handia, 2015ean Diputazioaren aurrekontua adinakoa. Hala ere, bada nondik heldu. Gakoa ekonomia-jarduera bizkortzea da eta horretarako gure industria indartu behar dugu. Ekonomia berpizten bada, lanpostuak sortuko dira eta aberastasuna banatzeko gauza izango gara, eta, hala, gizarte zuzenagoa lortzeko gai. Helburua da ekonomia berpiztu ahala justizia sozialak aurrera egitea.

**JESUS ZABALLOS**Abokatu
30 urte | Zarautz**BERBA BITAN****Gizarte ongizatea**

"Gure irizpidea da murrizketak ez aplikatzea euskal gizartearen ongizatean, eta osasunean, hezkuntzan... inbertitzen segitu, horiek ez dira-eta gastua, inbertsioa baizik"

Jesus Zaballos | PSE-EE

"Murrizketen alternatiba erreal bakarra gara"

U.M. | ARRASATE

Jesus Zaballos zarautzarrak ondo ezagutzen du udal jarduna, Lasarte-Oriako alkate ohia delako, besteak beste. Urteotan, Jauralaritzan ibili da aholkulari Etxebizitza, Obrak eta Garraio Sailean. Eta horrez gain, Lasarteko sozialisten idazkari nagusia ere bada, zinegotzi izateaz gainera.

ETA bako hauteskundeak izanda, kiniekek gehiengo nazionalista iragartzen dute...

Kinielak ez ditugu horrenbeste aintzat hartu behar, normalean kiniekek ez dutelako asmatzen. Adibide argia dira azken hauteskunde autonomikoak. Kiniela batek berak ere ez zuen iragartzen PSE-EEren bakarkako gobernu-rik. Beraz, uste dut urriaren 21ean euskal gizarteak esaten duenaren zain egon behar dugula.

Murrizketen eta nazionalista kataluniarren alternatiba moduan aurkezten duzue zuen burua.

Ez dut uste alternatiba moduan aurkezten garenik, baizik eta

benetako alternatiba garelako uste dut. Argi ikusten da zein den PPren politika agintean dagoen autonomia erkidegoetan, eta baita ere nazionalismo kataluniarra egiten dabilen politika. Nik uste dut gure alternatiba erreal bakarra murrizketen aurrean. **Nazionalista kataluniarrek aipatu dizkizut, zuen web orrian hala datorrelako, baina ez duzue euskal nazionalisten gainean ezer ere esaten; zein da arrazoiak?**

Gaur egun autonomia erkidego batean gobernatzen dabilen nazionalismo bakarra kataluniarra da. Badakigu Urkulluk hauteskundeak irabazten baditu, Artur Masek Katalunian egiten diharduena egingo duela; Urkulluk duen profila Masek Katalunian duen bera denez, politikak ere antzerakoak izango dira.

Emaitzek bidea emango balute, ze aukera daude PSE-EEren eta PPren arteko gobernu errepikatze?

Akordioak edo koalizioetan pentsatzen hasi aurretik emaitzak

ikusi beharko ditugu; hala ere, akordioak egiteko orduan, kontuan hartu behar duguna da zerk bateratzen eta zerk banantzen gaituen. Aurreko legealdian PPekin bateratzen gintuena zen Euskal Herriaren askatasuna lortzea, bakea iritsi zedin euskal gizartera. Bukaeran, baina, gehiago zen banantzen gintuena bateratzen gintuena baino: PPK Euskadin gura zuena zen Raxoi Madrilen aplikatzen zebilen murrizketak aplikatzea; eta azkenean, Patxi Lopezek epaitegietara eta guzti jo behar izan du, murrizketak aplikatu nahi ez, eta Euskadiren autogobernu defendatzeko.

Eta EAJrekin, posible ikusten duzue akordioaren bat?

"Urkulluk irabazten badu, Katalunian Mas egiten dabilena egingo du"

Gaur egun ez dugu hitzarmenik inongo erakundetan EAJrekin. Hala ere, uste dut badirela bateratu eta banandu ahal gaituzten gaiak: Urkulluk, adibidez, erreforma fiskala planteatzen du, eta Patxi Lopezek ere bai, baina sakoneko edukia oso desberdina da. Beraz, gai batzuetan oso zaila izango da akordioa lortzea; beste batzuetan, berriz, errazagoa. Hala ere, emaitzen zain egon behar dugu.

Zeintzuk dira PSE-EEren irizpideak krisiarekin?

Osasuna, hezkuntza... Ongizate gizartera. Murrizketak ez aplikatzea euskal gizartearen ongizate gizartearen. PPK gura zuen guk murrizketak horiek babestea, eta argi dugu EAJ gobernu iristen bada, aplikatu egingo dituela.

Eta Debagoieneko asmoak?

Inbertitzen segitu. Esaterako, Arrasaten ospitale berria eraiki da; Aretxabaletan anbulatorio berria planteatzen da, eta Bergarako eskola publikoaren eraikina berritzen dihardugu. Batez ere, Bildu Diputaziotik inbertsioa geratzen dabil probintzian, eta Jauralaritzarenak dira inbertsioak. Eta enplegua sustatzen ere segitu gura dugu, kooperatibekin elkarlanean.

NISSAN-EN EZ DA INOR PLAN BARIK GERATZEN

NISSAN RENUVA PLANA + PIVE PLANA

ETA GAINERA, EROSI ORAIN ETA EZ ORDAINDU 2013RA ARTE**

NISSAN QASHQAI
1.6i 117 ZP ACENTA Stop&Start16.500€^{ren truke*}NISSAN RENUVA PLANA + PIVE PLANA
B A R N E

Nissan. Innovation that excites.

GAURSA

Avenida Otaola, 22 - Eibar 20600
Tel. 943 82 09 74

www.gaurcars.com

Kontsumo mistoa: 5,9/100 Km. CO₂ emisioak: 139 g/km.

*PSP gomendatua Penintsula eta Balearretan, hauek berriz dituela: FAP, garraioa, Nissan Assistance, sustapen deskontua. Gobernuaren dirulaguntza eta zure autonomia erkidegoan behar bada aplikagarria izango ez den GBZB. ** Eskaintza baliagarria Nissan Qashqai 1.6i Acenta 117 ZP (86kW) Stop&Start autoa erosten duten bezero partikularrendako, euren izenean dagoen auto bat utzita eta RCI Banque SA Magic Planaren bitartez finantzatzeko badute. Eskaintza ez da bateragarria. 2012/12/31 arte edo Gobernuaren dirulaguntza plana amaitu arte baliagarria. Informazio gehiago jasotzeko, gertura zaituzte zure Nissan kontzesionario gertuenara. Ikusgai dagoen modeloa: Qashqai Tekna Sport.

Mikel Arana | Ezker Anitza-IU

"Gure papera sistema gainditzea da"

U.M. | ARRASATE

Mikel Arana Ezker Anitza-IUko koordinatzailea da, eta hura da urriaren 21eko hauteskundeetara lehendakari izateko aurkezten duten hautagaia. Abokatua da berez, Deustuan Zuzenbide ikasketetan lizentziaduna.

Kontuan hartuta Euskadin bizi dugun ETA bako errealitate politiko berria, kiniela guztiak gehiengo nazionalista eta abertzaleen alde egiten dute... uste duzue egoera berriak kalte egiten dizuela?

Inkestek esaten dute, baita ere, Eusko Legebiltzarrean gehiengo ezkertiarra izango dela, eta horrek kalte egin beharrean, biztanleen gehiengoari mesede egiten diola uste dugu. Izan ere, lehen aldiz ezkerrek aukera izango du herri honetako politikak bideratzeko, baldin eta euren burua ezkertiar moduan definitzen duten alderdiek hala egitea erabakitzen badute. **Ezkerriak izanda, gertu egongo zinakete EH Bildurekin gobernua osatzeko? Eta PSE-EEekin?**

Gure lehentasuna ez da inorekin gobernua osatzea. Pentsatzen dugu ezkerreko alderdi alternatibo eta eraldatzaileen papera ez dela sistemaren parte izatea, hura gainditzea baizik; eta erantzun horrek balio du bai Euskal Herria Bildurendako zein PSE-EErendako.

Hori bai, gobernatzen duenak gobernatuta ere, Bildu eta PSE-EE gertu egongo balira Legebiltzarrean ezkerreko politikak bultzatzeko, bide horretan aurkituko gaituzte.

Baina eurek erabaki beharko dute ezkerreko politikak egin gura dituzten, edo kontrara, orain arte egin duten moduan, arazo nazionala gai sozialen aurretik

"Ezkerreko politikak gauzatzeko erabakigarriak izan gura dugu"

ipintzea erabakitzen duten. Ezker Anitza-IUk Gutxieneko Dirusarreraren Bermearren (RGI) erreforma atzera botatzeko lege proposamena aurkeztu behar du; zer egingo dute Bilduk eta PSE-EEK? Ezker Anitza-IUk proposamena aurkeztu behar du eskumen fiskala Legebiltzarrerara pasa dadin eskatzeko; zer egingo dute Bilduk eta PSE-EEK? Ez da gobernu kontua, politika kontua baizik.

Alderdi txikia izanda, ze aurreikuspen dituzue hauteskunde hauei begira?

Eusko Legebiltzarrean ezkerreko politikak gauzatzeko erabakigarria izan daitekeen ezkerreko alderdi bilakatzeko.

Euskaldunoi iraultzarako dei egiten diguzue... ze proposamen ditu Ezker Anitza-IUk krisi gogor honi aurre egiteko?

Defizita txikitu eta diru sarrerak handitzeko erreforma fiskal sakona proposatzen dugu.

Dependentzia, osasun, hezkuntza, garraio publiko edo ener-



ZURINE VELEZ DE MENDIZABAL

MIKEL ARANA

Abokatua

38 urte | Ordizia



izquierda unida-los verdes
ezker anitza

BERBA BITAN

Euskadi ezkertiarra

"Guk hauteskunde hauei aurkeztu behar dugu ehun proposamen zehatz dituen programarekin, orokorrean Euskadi ezkertiarra lortzeko helburuarekin".

gia berriztagarriena moduko arloetarako Enplegu Plana ere badugu ardatz.

Kalitatezko hezkuntza eta osasun zerbitzuen aldeko apustua egiten dugu, sistema misto publiko-kontzertatu izatetik bakarrik publiko izatera pasatzen joango direnak.

Lurralde Historikoen Legea (LTH) erreformatzearen alde egiten dugu, bikoizketak ebitatzeko, eta Batzar Nagusien esku-menak udalen eta Legebiltzarren artean banatzeko proposamena ere jarriko dugu mahai gainean.

Ze du eskaintzeko Ezker Anitza-IUk gainontzeko ezkerreko alderdiek eskaintzen ez dutena...

Arlo guztietan elkarrizketa, baina ez inposizioa. Eta zintotasuna. Gutxi gara, txikiak gara, baina zintzoak gara.

Eta ze proposamen ditu Ezker Anitza-IUk Debagoienerako?

Hemen gauza ez da tokian tokiko edo eskualdeko politikak planteatzea. Guk hauteskunde hauei aurkeztu behar dugu ehun proposamen zehatz dituen programa batekin, orokorrean Euskadi ezkertiarra lortzeko helburuarekin.

Uda ostean berreskura itzazu azalaren distira eta argitasuna.

Hidrata zaitez!

- Aurpegi-hidratazioa.
- Peelinga eta azala indartzea
- Aurpegi-gaztetzera laserra erabilita
- Azaleko orbanak kentzeko tratamendua
- Aurpegi-berrindartzea laserra erabilita.

AURPEGIA GAZTETZEKO TERAPIA MEDIKOAK.

Arruabarrena doktorea, elkargokide-zk.: 6073

UDAZKENEKO
ESKAITZA*

**%20ko
deskontua**

Gorputz-hidratazioa
(peelinga, estalkia,
hidromasajea eta masajea).

* Urriaren 5etik azaroaren 30era



Amagara

Erdiko kalea 54 behe 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09



Oñatin zabaldu duten Eroski denda berria. | JAGOBA DOMINGO

Ohiko dendek baino %65 energia gutxiago behar du

- ▶ Eroskik Oñatin ireki duena Europako 1. denda %100 jasangarria da
- ▶ Urtean 757.000 zuhaitzek hartzen duten adina CO2 aurreztuko du

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Europako lehenengo denda guztiz jasangarria Oñatin dago. Atzo ireki zituen Eroskik bere establezimendu berriaren ateak. Orain arte bazituen denda eko-eragin-garriak –bat Grosen, Donostian,

eta bestea Castro Urdialesen, Kantabrian– baina Oñatikoa da lehenengo Zero Isuri denda, hau da, Eroski Center izenarekin CO2 askoz gutxiago bota, eta botatzen duena konpentsatzen duen Europako lehenengo denda. Horregatik, lehenengo establezimendua da ere Espainiako BREEAM agiria, eraikuntza ekologikoki jasangarria ziurtatzen duena, eta Europako ISO 50001 agiria, energia-kudeaketa zertifikatzen duena, biak lortzen.

Eroskiren Ingurumen Kudeaketa zuzendariak, Gotzone Artabe, esan du "oso pozgarria" dela Eroskirendako proiektu hori egia bihurtu izana, eta horrekin Espainian eta Europako denda "guztiz jasangarria" egitean "aurrekariak" izana. Bere esanetan, horrek erakusten du Eroski "ingurumenarekin konprometituta" dagoela.

Zero Hondakin helburua

Oñatiko dendak lau modu zehatzetan hobetzen du denda eredua: batetik, eraikitzerakoan ere, ingurumena zaindu da –material birziklatuak eta ekologikoak erabili dira, dena isolatuta dago berorik ez galtzeko, ura aurrezteko sistemak ditu, argi natural gehiago hartzeko prestatuta dago...–; bestetik, energia modu inteligentean erabiltzen da –hotz, klimatizazio eta argiztapen sistemak energia aurrezten dute–; Zero Hondakin helburua dauka –jatekoak Elikagaien Bankura ematen dira; hondakin organikoak konpostatu egingo dituzte; dena bir-

ziklatu egingo da...–; eta energia berriztagarriak erabiliko ditu.

Energia 'ekologikoa'

Neurri horiekin, ohiko denda batek baino %65 energia gutxiago beharko du Oñatiko saltoki

berriak, eta urtean 757.000 zuhaitzek xurgatzen duten CO2 kopuru berbera aurreztuko du. Gainera, ekologikoki eragingarriak eta jasangarriak diren energiaz elikatuko da establezimendu berria.

ESANAK

"Europako lehenengoak izateak asko pozten gaitu"

GOTZONE ARTABE | EROSKIREN INGURUMEN ZUZENDARIA

DATUAK

21

GRADU

Establezimenduko tenperatura 21°C-koa izango da.

34.240

ZUHAITZ

Urtean, 34.240 zuhaitzek xurgatzen duten CO2aren adinakoa aurreztuko du.

69 milioi gutxiago zor eta 50 milioi gutxiago irabazi

Eroskik BMEB erakundeari bidali dio urteko lehen seihilekoko balantzea. Bertatik, Eroskik nabarmentzen du zorpetze garbia 69 milioi euro txikiagoa izan dela. 2012/13 ekitaldiko lehen erdi hau 3.114 milioi euroko negozio-zifrarekin bukatu du Eroskik, iaz baino %3,8 gutxiago. Haietatik 2.950 elikadura-banaketari dagozkio, hau da, bere jarduera nagusia.

Krisiaren eragina eta azken urteotan hartu duen zorraren zama igartzen dabil Eroski. Izan ere, talde osoak –Eroski matrizeak eta taldea osatzen duten gainerako sozietate eta kooperatibak– iazko lehen seihilekoko baino 50 milioi euro gutxiago irabazi ditu, eta galera horiek iazko epe berekoak baino 16 milioi handiagoak dira. Hala ere, iaz 37 milioi irabazi zituzten higiezinak salduta, eta hori kontuan hartu barik, aurtengo emaitzak iazkoak baino 21 milioi hobeak izango zitezkeen.

Emaitza negatiboak konpentsatzeko, gutxiago gastatzeko neurriak ezartzen dihardu Eroskik azken urteetan: zehazki, pertsonal gastuak txikitu eta establezimendu-sarea egokitu. Horretan bai, emaitza positiboak ditu Eroskik: esplotazio gastuak 31,5 milioi txikiagoak izan dira aurtengo lehenengo erdian.

Ekarpenen interesa %4,768koa da aurten

Eroskiren Mendeko Ekarpene Finantzarioak (AFSE) delako parte-hartze emisioetatik zirkulazioan dauden emisioaren gaineko %4,768ko interesa dute 2012ko ekitaldian, joan den ekitaldian baino 0,153 puntu gehiago. Interesok urtarillaren 31n ordainduko dizkie Eroskik emisioen jabeek.

Alokairuak bi laguntza-neurri izango ditu udazkenean

L.K. | ARRASATE

Etxebizitzaren alokairu merkatua zabaltzeko eta prezioak jaisten laguntzeko bi neurri jarriko dira martxan udazkenean: ASAP programa eta Hiri-errentamenduen lege berria.

ASAP programak etxea errentan ematen dutenen bi arazo edo beldurri erantzutea du helburu: batetik, errenten ordainketa-eza, eta bestetik, etxebizitza hondatzea. Hirugarren arazo bat ere ematen da: etxebizitza berreskuratu nahi, eta ezin izan. Horri dagokionez, Hiri-errentamenduen lege berriak –aurreikuspenen arabera udazkenean indarrean sartuko dena– gaur egun indarrean dagoen hasierako epea bost urtetik hirura jaitea aurreikusten du. Gainera, jabeak etxebizitza behar izanez gero, berreskuratzeko aukera ematen duten egoera berriak jasoko dira.

Deba Garaia Higiezin Agentziako Jesus Markaideren esanetan, gainera, ohiko etxebizitzaren errentamenduko errenten gaineko presio fiskala txikiagoa da, izan ere, errentamendu baten %5eko etekina, interesen kasuan, %8koaren parekoa izan daiteke.

Hori guztia kontuan izanda, Markaidek dio etxebizitza errentan ematea eta hartzea orain arte baino askoz ohikoagoa izango dela aurrerantzean.

Jardunaldi gastronomikoetan, aurten, mokadutxoak

XII. Jardunaldi Gastronomikoak antolatuta dituzte Mankomunitateak eta hainbat jatetxek. Azaroaren 9ra arte, garaiko eta bertako produktuak dituzten menu bereziak emango dituzte. Aurtengo berrikuntza da hasieran mokadutxoak emango dutela, Cruzcampo Gran Reservarekin lagunduta. Informazio gehiago: www.turismo-debagoiena.com.

AHTren turismo aukerak azalduko ditu Basquetourrek

AHT Euskadin: gaurko egoera eta aukera berriak turismo ekintzetarako delako jardunaldia izango da Gipuzkoako Bazkundearen egoitzan, hilaren 18an, 09:30ean hasita. Izen bereko ikerketa aurreztuko du Basquetourrek. Eusko Trenbide Sareko eta Garraio Sailako ordezkariak izango dira. Izenematea: 943 00 03 12.

Material Konposatueta Adu titulu emango du MUK

Gaiker-ik4 Teknologia Zentroekin batera, 300 orduko ikastaroa sortu du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Mondragon Unibertsitateak eta Gaiker-ik4 Teknologia Zentroak baterako ikastaroa antolatu dute material konposatueta adituak prestatzeko. Merkatu gero eta zorrotzagoaren beharrik auzetza da ikastaroaren helburua.

Merkatu horretan, composite materialak arian-arian gainerako materialak ordezkatzeko ari dira, besteak beste, arinagoak direlako, korrosioaren edo nekea-

ren kontra erresistentzia handiagoa dutelako eta neurrirako egituren diseinuak ahalbidetzen dituztelako.

Material Konposatueta Aditu titulu jasoko dute ikastaroa arrakastaz bukatzen dutenek. Formazio eskaintza horren lehen edizioa hainbat sektoretako profesionalei zuzenduta dago -aeronautikoa, aeroespaziala, automobila, garraio publikoa, eraikuntza, azpiegiturak, itsasontzigintza,

hodiak eta gordailuak, kirola eta aisialdia eta energia eolikoa dira sektoreak, besteak beste.

Ikastaroak 300 ordu iraungo du, 20 lagunendako lekua izango da eta izenemate epea urriaren 20an bukatuko da. Mondragon Unibertsitatearen eta Gaiker-ik4 Teknologia Zentroaren instalazioetan egingo da. Gaiker Zamudioko teknologia parkean dago oinarrituta. Han dituen laborategiek 1.430 metro koadro hartzen



Material aditu, laborategian lanean. | GAIKER-ik4

dute, eta denetara 8.800 m²-tik gorako instalazioak dira.

Amaieran, praktikak

Prestakuntza-ekintza lau modulutan egituratuta dago, filosofia bakar batekin: ekintzarako prestakuntza. Landuko diren gaien artean, honako hauek azpimarra daitezke: aplikazioetako erronka berriak, material berriak, prozesu berriak, prozesuen amortizazioa, material-hornitzaileak, molde eta makinak eta diseinu eta entseguen jarraibideak.

Ikastaroaren amaieran, zati praktikoa izango da, bai ikasleen ohiko lantokian, bai beste enpresa batzuetan. Ikasi dutena erabiltzeko eta ikastaro-bukaerako proiektua egiteko aukera izango dute ikasleek enpresa horietan.

Azaroaren 8an

Ikastaroa azaroaren 8an hasiko da eta Mondragon Unibertsitateko zein Gaiker-ik4 Teknologia Zentroko hogeitik gora profesionalek eta adituek emango dute. Bi erakundeak adituak dira mate-

rial plastikoei eta composite materialei lotutako I+G+n arloan 1980ko hamarkadatik, eta beren ezaugarritze- eta prozesatze-ekipamenduek ez dute parerik Espainian, Mondragon Unibertsitateak dioenez.

DATUAK

300

ORDU

300 orduko ikastaroa izango da eta 20 ikasle hartuko ditu aurretik.

3

HAMARKADA

80ko hamarkadatik aditu dira MU eta Gaiker material plastikoen I+G+n arloan.



TOYOTA

75 URTEURRENA

APROBETXA ITZAZU BERE ABANTAILAK TOYOTA GAMA OSOAN

Ezazu azutu Toyota bati ezabatu behar duzuenak

Finantza zerbitzua 7 urteko arlokoa

Garantia 5 urtekoa



Toyota Auris Diesela

14.990 € -ren truke edo hilean **185 €** -ren truke

Sarrera: 2.834 €. 185 euroko 84 kuota. TIN: %6,42, TAE: %7,5

2.800 € balio duen ekipamendu honekin.

TOYOTA TOUCH

AIRE GROGALLUR

ATZETALDEKO KAMERA

ALEAZIOKO NAGULAK

EGONKORTASUNA KONTROL SISTEMA

7 URTEKO ARLOKOA

ATZERANDOSPILATU TOLESGARRIAK

ETA ASKOZ GEHIAGO...

EuskoAuto

www.euskoauto.toyota.es

BERGARA
Olabarrena, z/g
Tel: 943 762 385

ELGOIBAR
Olaso industrialdea
Olaso kalea 23 - Tel: 943 747 417

PASAIA ANTXXO
San Markos errepidea 32
Tel: 902 345 245

OLABERRIA
Karabi industrialdea
Tel: 943 805 926

Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,5. CO2 igorpena (g/km): 118

Toyota Auris 1.8 Active PSF garmendutua 34.990 €. Sarrera 2.834 €, TIN: %6,42, TAE: %7,5. 185 euroko 84 kuota. Finantza zerbitzua hileko kontribuzioa %2,75. 334,29 €. Abantaila zerbitzua 28.374 €. Ekipamenduak Toyota Kredituarekin finantzatu daitezke. BEZA gaitasuna, matrakulazioa, zerga, sarrapena, kontsumoaren akordioa. 3 urteko bermaketa edo 300.000 km. (bererengoa gertatzen dena). 2 urteko E-batzen bermaketa. 3 urteko digitalak laguntza eta PVE berrak. Bete behar dituzte gaitasunak, zirkulu merkaturatu eta aukera erabiltzeko ez daude berrak. Ekipamenduak 2012/2013.1ra arte, berrikuntza eta Bateria uhartzeak, eta beste abantaila batzuk. Sarrapen hau da hainagaita. Finantza zerbitzua eta Ekipamenduak sarrapen horietatik konpartitzen dira. Baita berrikuntza zerbitzua ere. Baita berrikuntza zerbitzua ere. Baita berrikuntza zerbitzua ere. Baita berrikuntza zerbitzua ere.

Nafarroa Oinez jaialdira joateko txartelak salgai daude hilaren 17ra arte

Urriaren 21eko Nafarroa Oinez jaialdira joateko autobusa antolatuta du Debagunek, eta txartelak salgai daude urriaren 17ra arte AED, Jardun eta Loramendi euskara elkarten egoitzetan. 15 euro da, 13 euskara elkarreetako bazkideendako.

Autobusa Bergaran geldituko da 09:45ean, Arrasaten 10:00etan eta Aretxabaletan 10:15ean. Itzulera 19:00etan izango da.

Zizur Txikian da aurtengo Nafarroa Oinez, eta San Fermin Ikastolak antolatzen du. Bigarren Hezkuntzako laugarren ikasgele egiteko laguntza behar du. Beste helburu bat da Euskal Herria Irratiaren lana aitortzea.

Idazle Eskolak ikasle ohiei mintegi bat eskainiko die

Bergarako Idazle Eskola graduondokoak 10 urte ditu aurretik. Hori ospatzeko, handik ikasle gisa pasatu diren idazle berrietako batzuei *Idazleak irakurle* delako mintegiko saioa eskainiko die eskolak. Aldi berean, hainbat ikasle egin dituzten saiakera akademikoak oinarri hartuta, lan horiek saiakera dibulgatzaile eta literario bihurtzeko bidea ere egingo da.

Beste alde batetik, azaroaren 10ean, Idazle Eskolako ikasle ohiek eta nahi duten guztiekin, Bergaran egingo dute *Idazleak irakurle* mintegiko lehen saioa. Jerardo Elortzaren eskutik, talde-irakurketa egingo dute.

ZUZENKETA

Asteheneroko GOIENA aldizkarian, 4. orrian, honakoa esan genuen: "EAJk babestutako kale agerraldia" izan zela *Kanto* euskal presoaren aldekoa. Bada, osoko bilkuran onartutako mozioan, EAJk babestutakoan, *Kanto*-ren askatasuna eskatzen zen, baina ez zen kale agerraldia aipatzen. EAJk ez zuen espreski agerraldia babestu.

U-21



EUSKADI
AURRERA
eaj
PNV

Egibar, Bergaran. | GOIATZ ARANA

Egibar: "Pertsona ardatz gisa hartzen dugu"

L.K. | BERGARA

EAJ alderdiak ekintza mordo egin ditu egunotan Debagoienean. Hala, joan den martitzenean, Antzuolako zinegotzi eta Eusko Legebiltzarreko kide Maria Eugenia Arrizabalagak egoera politikoaren gaineko hitzaldia egin zuen Olanar etxean.

Gipuzku Buru Batzarreko presidentea, Joseba Egibar, Bergaran izan zen eguaztenean. Elikagaien Bankua bisitatu zuen, eta esan zuen bankua "pertsonak ardatz dituen gizartearen" erakusgarri zela. EAJren filosofia adierazi zuen: "Gizartea egituratzerakoan, pertsona ardatz hartzea; eta, Euskadi libre bat egin behar badugu, gizon-emakume librez osatutakoa izango da". Horrekin lotuta, Legebiltzarrean onartutako RGI Legea delakoak eta Emergentziazko Laguntzen Legeak "inor zokoratu ta geratzen ez" dela bermatzen dutela esan zuen.

Berriketaldia Elgetan

Zapatuan, Maria Eugenia Arrizabalagak eta Gipuzkoako ahaldu nagusi ohi Markel Olanok herritarrekin berriketaldia egingo dute Elgetako Espaloia kafe antzokian, 12:30ean. Elgetako Uri Buru Batzarreko kideak ere han izango dira.

EH Bilduk posta bidezko botoa tramitatuko du gaur ere

Bergaran daukaten bulegoak zabalik segitzen du, eta gaur da tramitea hasteko azken eguna

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Gaur, eguna, da posta bidezko botoa tramitzeko azken eguna. Bergarako Bilduren bulegoan, koalizioaren elkargunean tramite horiek egiteko aukera dago oraindik. Barrenkalean dago egoitza, 16. zenbakian, lehen Argazki denda zegoen lekuan. Hori eta gero, oraindik bertara joan ahal izango dute posta bidezko botoa tramitatu dutenak, tramiteak jarraitzeko. Bulegoaren ordutegia hau da: lanegunetan, 10:30etik 12:30era eta 18:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara.

Arduradunek diotenez, "mordoxka bat jende" atenditu dute zabalik egon den hiru asteetan.

Ezker Anitzak estatu federalista proposatu zuen Arrasaten

Estatu eredu egokiena atxikipen askeko federalismoa dela esan zuen Mikel Aranak, Ezker Anitza alderdiko lehendakariak, astelehenean Arrasaten egindako hitzaldian. "Abertzale espainol eta abertzale euskaldunen arteko erdibidea" da Ezker Anitzaren eredu. Lehenengo pausoa, euren esanetan, "herriei autodeterminazio eskubidea aitortzea" da.

Equo Berdeek ekitaldiak egingo dituzte Bilbon eta Gasteizen

Equo Berdeek zenbait ekitaldi egingo dituzte: gaur, hilak 11, Bilbon, Alde Zaharrea pintxopoteoa Rosa Martinezekin (Arriaga antzoki parean, 20:00etan) eta Aitor Urresti lehendakariarekin pintxo-poteo-galdera Gasteizen (La Cantara de Bacon batuko dira, 20:00etan). Bihar, *bizikleta* da egingo dute Bilbon (Arriaga parean, 10:00etan).

Bergaran ekitaldia

Kanpainan jarraitzen du EH Bilduk ere, eta ekintza batzuk iragarri ditu datozen egunetarako. Hala, bihar, eguna, ekitaldia izango da Bergaran, 20:00etan. Rebeka Uberak eta Maite Aristegik egingo dute berba, eta txalaparta, abestiak, dantza, bertsoak eta bideoak izango dira.

Zapatuan, ekitaldi nazionala egingo dute Barakaldoko BECen,



Bilduren bulegoa, Barrenkalean. | MONIKA BELASTEGI

eta autobusak antolatu dituzte hainbat herritik hara joateko. Ekitaldia 17:30ean hasiko da. Egun berean, 11:00etan, bizikleta

martxa egingo dute Oñatin, eta eguaztenean, hilak 17, triki-poteoa San Lorentzon eta Olakuan, 19:00etan, eta gaztaina-jana gero.



Blanca Roncalek arrosak banatu zituen Aretxabaletan, eta Lopez ekintzaileekin batzartu da Donostian



Blanca Roncal. | ARTXIBOA

PSE-EEko hautagai Blanca Roncal arrasatearrak arrosak banatu zituen astelehenean Aretxabaletan, herriko zinegotziekin; hirugarren da Gipuzkoako zerrendetan.

Kanpainako ekitaldiekin jarraituz, atzo, eguaztena, Patxi Lopez lehendakariak eta Iñaki Arriola hautagaia ekintzaileekin batzartu ziren Donostiako Amara Plaza hotelean.

urkullu.eu eaj
PNV

PROGRAMA



Hiltza ematen dat.

ZABALIK

AITOR BIAIN
http://goiena.net/iritzia/



Krisia 2, Kultura 0

Azkenaldian, kulturaren barruan gauden jendea partidu gogor bati aurre egiten gabiltza. Askok osatzen dugu kultura taldea, baina aurkari gogorra tokatu zaigu zelaian beste aldean: Krisia. Bera bakarra da, baina oso gogorra, eta badaki non min egin. Hilabetetako partidua jolasten bagabiltza ere, eta gure taldea (Kultura) gogor saiatzen ari den arren, zapalduta gaude, azken bi tantoak aurkariak sartu baitizkigu:

Krisia 1, Kultura 0 (iraila, 2012). Hainbat eragile eta erabakiren ondorioz, BEZA igo zen aurreko hilabetean, eta nahiz eta aldiko erabaki bat dela esaten duten, lehenengo ondorioak ikusi dituzte gure taldeko kultura-kontsumitzaileek. Zinera joateko gogoko duenak %13ko igoera jasan du bere sarreretan. Hau da, lehen 6,6 eurotan ordaintzen zen sarrera orain 7,3 eurotan ordainduko da. 70 zentimo gehiago. Musika jaialdi handietara joateko ohitura dutenek, adibidez, 8 euroko igoera jasango dute, beraien sarrerak garestiagoak baitira.

Krisia 2, Kultura 0 (urria, 2012). Gol baten ostean beste bat. Eta hau oraindik gogorragoa 2013. urtera begira kultura-egileentzat. Wertek Euskal Herriko kultura laguntzen erdia jaitsi nahi du. Erabaki honekin, talde eta erakunde askok ez dute inongo diru laguntzarik jasoko edota jaitziera gogorra jasango dute: Donostiako Zinemaldia, Donostiako Hamabostaldia, CIT, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarte... dira jasango duten talde batzuk. Eta noski, talde txikiago askok ere. Honek guztiak euskal kultur produkzioaren kantitatea eta kalitatea jaistea ekarriko du.

Partidu zail baten aurrean gaude, baina Euskal Herriko kultura-kontsumitzaileok eta kultura-egileok gogor jarraitu behar dugu lanean. Ez da egongo dirurik, baina denok batera aurre egingo diogu momentu gogor honi. Beraz, badakizue, antzerkia egiten dugunok, musika egiten dugunok, zinea egiten dugunok, eta abarrek zuen laguntza behar dugu. Mantendu dezagun Euskal Herriak duen kultur kalitatea bere gorenean.

"Denok batera aurre egingo diogu momentu gogor honi"

USTEAK USTE


MIRARI ALTUBE | aretxabaleta@goiena.com

Twitterrean ere galtzaile

Gustuko dut Twitter eta kazetariondako oso tresna erabilgarria delakoan nago. Lan kontuetarako bakarrik erabiltzen dut, baina lankide askok kontu pertsonala ere badute. Bada, hala ere, oraindik ulertzen ez dudana zer bait: lagun, lankide eta jarraitzaile euskaldun askok (dezentek, hainbatek...) gaztelera erabiltzea. Kasu batzuetan, gainera, euskaldun peto-petoak, beti euskaraz jarduten dutenak. Orainsu galdetu diot lagun bati zergatia, eta haren erantzuna: "Jarraitzaile askok ez dakite euskaraz". Bai, zentzuzko erantzuna, baina euskara galtzaile. Norberaren hautua da, jakina. Nik neuk, behintzat, esateko dudana libre esateko euskara behar dut.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



GUTUNAK

Maritxu Kajoi Komisiñuari, 'Txumai'-ren senitartekoen partetik

Itziar Aranburu Martinez eta familia
Arrasate

Maritxu Kajoi jaia ospatu dugu aurten ere bai. 36 urte daramagu dotore jantzi eta Maritxu omenduz egun bitxi hau bikain pasatzen.

Urte luze horietako gehienetan Jesus Maria Martinez Txumai han egon da txaranga aurrean, serio, txintxo, ilusio handiz, bere zuzendari lana ederto betetzen.

Artista hutsa!
"El mejor director del mundo", esaten zuen berak irribarretsu!

Aurten Txumai joan zaigu. Gure familian faltan botatzen dugu.

Izugarri, gainera!
Gurekin dago, bihotzean daramagu, barru-barruan sartuta.

Eta ikusi dugu zuen bihotzetan ere presente dagoela.

Esku programan bertso zoragarria eta hunkigarria eskaini diozue, eta, begietan malkoak eduki arren, alaitasunez kantatzeko eta dantzatzeko aukera izan dugu bera gogoratuz.

Txumai-ren senitartekoen partetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez.

Espoloiko jaiak

Maialen Madariaga
(Espoloiko Jai Batzordea)
Bergara

Pasa den irailaren 29an Bergarako Espoloira hurbildu zen edonork sumatuko zuen bertan izan zen jai.

Giro hori ez zuten, ordea, arbolatik arbolara lotutako banderatakoe, globoek edo kartelek soilik jarri.

Bertara parte hartzeko gogoz eta pozik gerturatu zineten pertsona horiek guztiak gabe ez luke zentzurik izango egun honek.

Horregatik, Espoloiko Jai Batzordeak zuen guztion

jarrera bihotz-bihotzez eskertu nahi luke.

Honekin batera, jai honen antolaketa posible egin duzuen dendari eta auzotarrak ere eskertu nahi genituzke: Idoia ile-apaindegia, Keros, Joskintza, Anezka, Kanela, Hamaika, Aldai harategia, Itsas Eder, Gaztelu, Gaittao harategia eta Euskadiko Kutxa.

Aurrez aipatu ditugun hauek guztiak gabe, ez genuke Espoloitxo maskota sortzeko baliabiderik izango, ez genuke otarre dotorerik osatuko, eta ezta goizeko hamaiketako salda beroa edango ere.

Esan beharra dago aurtengoan ere jaso dugun babesak hurrengo urteetarako indarra eta gogoia piztu digula.

Horregatik, guztion lana eskertzearekin batera herritar guztiak animatu nahi genituzke auzotako jaietan parte hartu eta galdutakoak berreskuratzea.

Honela, auzo izaera berreskuratzeaz gain, bertakoen arteko harremanak sendotzeko aukera ederra delako.

Eskerrrik asko, guztioi, eta hurrengo urtera arte!

Atal honetan argitaratzeko diren gutunak, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera, bidali: egilearen izena eta abizena, herria eta telefona. Gutuna helarazteko bideak: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano,

Kepe Martelo

Publizitatea Mireia Larrañaga,

Amelia Mundifiano, Zierza Martin,

Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berebizar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER

ARRASATE 20500:

Oñalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA

ARETXABALETA 20550:

E05 Basabe Poligonoa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05

Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com


Harpidetza Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000

ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Tere Irastortza | Idazle Eskolako zuzendari eta irakaslea

"Idazle Eskolaren sorrerako helburuak beteta, beste hainbat sortu dira hamar urteko bidean"

- ▶ Idazle Eskolaren bi urteko graduondokoak 10. urteurrena bete du aurten
- ▶ Izen handiko idazleak dira idazle izan nahi dutenekin lan egiten dutenak

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Bergarako Idazle Eskolako graduondokoak 10. urteurrena bete du. Hori ospatzeko, ekintza ezberdinak burutuko dituzte. Besteak beste, azaroaren 10ean, *Idazle Irakurleak* mintegiko lehen saioa egingo dute Bergaran, Jerardo Elortzaren eskutik.

Hamar urteko bidearen balorazioa egiteko, eta Idazle Eskolaren etorkizuna ezagutzeko, Tere Irastortza, zuzendari eta irakaslearekin egin dugu berba.

Idazle Eskolak 10 urte bete ditu. Urteurren borobila.

Bai. Ilusio handiarekin hasi ginen. Proiektu herritzailea zen eta ez genekien zer nolako harrera izango zuen herritarren artean. 10 urte bete ditugu, eta oso pozik gaude orain arte egindako bidearekin. Gainera, graduondokoa egiteko asmoa duten herritar asko daude, eta izen-ematea oso ondo doa.

Zorion bikoitza eman beharrean gaude orduan: hamarkadarengatik eta proiektua sendotzeagatik.

Bai, zorionak hartzeko moduan gaudela esango nuke. Oso pozik gaude orain arte egindakoarekin eta, zailtasunak gaindituta, lanean segitzeko asmoz gaude.

Urtemuga betetzeko ekitaldi bereziak egingo dituzue.

Bai, hala da. Graduondokoak betiko bidea jarraituko du, baina hamargarren urtemuga dela-eta, ekitaldi bereziak egingo ditugu. Alde batetik, Idazle Eskolako ikasleek egindako saiakera akademikoak oinarri hartuta, lan horiek saiakerak dibulgatzaile eta literario bihurtzeko bidea egingo dugu.

Beste alde batetik, azaroaren 10ean, Bergaran, *Idazleak Irakurle* mintegiko lehen saioa egingo dugu. Jerardo Elortza oñatiarrak gidatuta, Bergara Literaturan eta Telesforo Monzonen lanen talde-irakurketa egingo dugu. Ekitaldia irekia izango da: gure ikasle diren eta izan direnendako, eta herritar guztiendako. Azkenik, egun berean, Idazle Eskolatik sortu diren idazle berriak eta horiek idatzitako lanak erakutsiko ditugu; besteak beste, Joseba Peña, Ione Gorostartzu, Mikel Agirregomezkorta, Leire Zubeldia...

Idazle berriak ezagutuko ditugu orduan.

Orain dela 10 urte proiektua mar txan ipini genuenean euskal idazleek egiten zutena ezagutarazi gura genuen. Hori horrela, gure irakasle guztiak Idazle Elkarteko kideak dira: Harkaitz Cano,



Tere Irastortza, Idazle Eskolako zuzendari eta irakaslea. | ARGAZKI PRES

Aizpea Goenaga, Andu Lertxundi, Edorta Jimenez, Paulo Iztueta, Itziar Gomez...

Zein helbururekin sortu zenuten Idazle Eskola?

Euskal idazle gehienen iturria gaztelania zela. Ordu hartan euskaraz idazten zen gaztelaniatik itzulita. Joera hari buelta emateko sortu genuen Idazle Eskola. Literatura alorrean, akaso, hasiak ziren egoera aldatzen.

Idazle Eskolara datozenek askotariko lanbideak dituzte: medikuak, ingeniariak, kazeta-

"Daukagu norbere zuzenketan oinarritzen den metodologia"

"Etorkizuna? Laguntza bako etorkizuna aurreikusten dugu"

riak, irakasleak, administrariak... Itzulpengintzaren errota mugitzen zuen euskarazko produkzioa. Gure asmoa zen errota horri buelta eman eta euskarazko sormena indartu.

Hamarkada eginda, orduko helburuak bete direla esango zenuke?

Bai. Hasierako helburuak bete dira, eta bidean beste hainbat sortu dira. Askotan erakutsi ez ditugun gaiak landu ditugu.

Oso erakargarria da izen handiko idazleak izatea Idazle Eskolako irakasle.

Erakargarria da. Baina, aldi berean, idazle izan gura dutenei izen handiko idazleak eta euren lanak ezagutzeko aukera ematen diegu.

Zein da Idazle Eskolan erabiltzen duzun metodologia?

Gure eskolatan ez da teoria gehiegi ematen. Ez da literatura gomentatzeko leku bat, baizik eta, hainbat testu genero nola idatzi erakusten duen lekua: nola idatzi antzerkia, poesia, eleberria, ipuina... Abiapuntua, beti, norbere gaitasuna da. Hortik aurrera erakusten diegu testu ezberdinetan idazteko erabili beharreko estrategiak. Norbere lanaren zuzenketan oinarritzen den metodologia erabiltzen dugu.

Hori horrela, ikasle guztiak testuren bat idazten bukatzen dute?

Lehenengo ikasturtean, idazten diren testuak, astebetean bukatu beharrekoak dira. Bigarren urtean, aldiz, ikasle bakoitzak proiektu propioa egin behar du, berak aukeratutako tutore batekin. Gutxienez 30 eta gehienez 40 orri dituen lana idatzi behar dute.

Lan horiek guztiak publikatzen dira?

Graduondokoak bi bide ematen ditu lanak publikatzeko: webgunea, www.idazten.com, eta aldizkaria. Idazle bakoitzak bere bidea ere egin dezake: argitaletxera joan eta bere testuaren aldeko apustua egin. Adibidez, Ione Gorostartzuk poesia liburua publikatu du, eta Joseba Peña eleberria.

Zein da Idazle Eskolara doazenen profila?

Hasierako ikasturtean batez besteko adin tartea 40 urtekoa zen. Aldiz, azken urtetan, ikasleen %30, 27 urtetik beherakoak dira.

Lehen hamarkada beteta, beste hamar urte betetzeko asmoa duzue? Nolako etorkizun dauka Idazle Eskolak?

Ez dakigu 20 urte betetzera helduko garen. Krisiak eragina izan du guran, bereziki, laguntzatan. Baldintza kaxkarretan gabiltza lanean azken lau urtetan. Etorkizuna? Ikasle aldetik ez dugu arazorik izango, baina laguntza bako etorkizuna aurreikusten dugu, eta ez dakigu noraino helduko garen.

Idazle Eskolan parte hartu gura duenak nora jo behar du?

Graduondokoaren eta hamargarren urteurreneko informazioa www.idazten.com atarian daukazu. Era berean, izena bertan eman daiteke.

HERRIAK

ARETXABALETA

Herbeheretarrak gurean, azkenekoz?

- ▶ Zazpigarren urtez Kurtzebarriko ikasleek Merletcollege-ko ikasleen bisita izan dute
- ▶ Elkartruke programa, baina, arriskuan dago, Jaurlaritzak dirulaguntzak kendu dituelako

XABIER URTZELAI | ARETXABALETA
Herbehereetako iparraldeko Cuijk herrian dago Merletcollege ikastetxea. Eta joan den zapatuan ikastetxe horretako 35 ikasle eta hiru irakasleak Aretxabaletara iritsi zirenerako, Kurtzebarri eskolakoek ez aspertzeko moduko egutegia zuten prest. Eta zorionez, DBHko 4. mailako ikasleekin batera, aurreikusitako ekintza guztiak eguraldi ederraz lagunduta egin ahal izan dituzte: "Azken hiru urteotan zorte galanta izan dugu eguraldiaz. Esaterako, martitzenean Donostian izan ginen egun-pasa, eta oso eguraldi ona izan genuen. Hala, segituan konaturatu ginen ikasleei asko gustatu zitzaieela *Haizearen orrazia*, bertara iritsi eta argazkiak ateratzen hasi zirelako eurentako asko", adierazi digu Enara Iriondo irakasleak.

Eguaztenean izan ginen Iriondorekin, egun hartako ekintzetan buru-belarri zebilela –ikasleek herri-kirolak egin behar zituzten–: "Oso ondo doa dena. Zapatuan iritsi ziren ikasleak, eta domekan gure ikasleen familiaretakoekin egun-pasa joan ziren. Batzuk hondartzara, besteak mendira... Astebeteko egonaldia egingo dute, eta egubakoitzean itzuliko dira etxera".

Zazpi urteko esperientzia

Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan duela zazpi urte hasi zuten Elkartruke programa: "Urte hauetan guztietan, ikastetxe berberarekin egin dugu programa, Herbehereetako MerletCollege ikastetxearekin. Oso ikastetxe handia da, eurek gurekin batera beste lurralde askotako eskolekin dute hartu-eman, eta euren gaitasuna joaten garenean ikusgarria izaten da, lurralde horietako guztietako ikasleekin batzen garelako".



Kurtzebarriko eta Merletcollege-ko ikasleak, Donostiako *Haizearen orrazia*-n; hemengo ikasleek martxoan bueltatuko dute bisita. | KURTZEBARRI ESKOLA



Aretxabaletako plazan, eguaztenean, sokatiran. | MIRARI ALTUBE



Ikasleak Lariño auzoan, atseden hartu. | KURTZEBARRI ESKOLA

DATUA

38

LAGUN

Merletcollege ikastetxeko 38 lagun etorri dira, ikasle eta irakasleak barne; hala, Kurtzebarrikoekin batuta koadrila galanta osatu dute.

Hala, Iriondok elkartruke programak dituen abantailen gainean egin digu berba: "Oso esperientzia aberasgarria da ikasleendako, eta baita gurasoendako ere. Batetik, ikasleek ingelesez moldatu behar izaten dute, baina ez eskolan bakarrik, baita eskolatik kanpo ere. Jendea ezagutu, lotsak alboratu eta ardurak hartzen dituzte, gauza mordoak ikasten dute, eta kanpora joaten direnean bertako familie-

kin hartu-eman izaten dute, ez dira turista soil moduan joaten. Gainera, beste hezkuntza sistema bat gertutik ikusi ahal izaten dute".

Hala, Kurtzebarrikoen aurtengo helburua izan da Merletcollege-ko ikasleei bertako ohiturak erakustea: "Bertako jaiak, jolasak, ohiturak... erakusten gabiltza". Aipatu bezala, ikasleak herri kirolak egiten harrapatu genituen eguaztenean, eta mar-

titzenean, esaterako, baserri batera egin zuten bisita.

Azkena izateko arriskuan

Ditxosozko krisiak, baina, hemen ere eragina izan du, eta baliteke aurtengoa azkena izatea: "Eusko Jaurlaritzak programa hauetarako ez du laguntza gehiagorik emango, eta zalantza dugu datorren urtean egin ahal izango dugun, gurasoendako kostu handia izango litzatekeelako".

BESTE ALDE

rent a car

Tel. 618 88 12 42

bestealde@bestealde.com

www.bestealde.com

Hurbil gaude, zeu urrun eramateko.



Autoak



Ibilgailu industrialak



4 x 4



Autokarabana



Eta orain baita ere Eibarren

Ondorengo instalazioetan:

NISSAN GAURSA

Otaola Etorbidea, 22. 20600 Eibar
Gipuzkoa

Arriandi Auzoa, 12. 48215 Iurreta-Bizkaia

Areiltza Dokorea eta Estrauntza kaleen arteko izkina. 48011 Bilbao-Bizkaia

Brodas Bros taldearen *Concierto Concepto* ikuskizunaren une bat. | ARRASATEKO UDALA

Kantu eta dantza hitzorduz josita dator Amaiako egitaraua

Kantu, antzerki, dantza eta beste makina bat hitzorduren ostean, Arrasate Musikaleko Bandak itxiko du Amaia antzokiko urteko egitaraua abenduan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Atzo eguerdian aurkeztu zuten, Kulturaten, urritik abendura bitartean Amaia antzokian egingo diren ekintzen egitaraua. Kepa Urteaga Kultura zinegotziak, Jon Garai Udaleko Euskara eta Kultura Sustapeneko buruak eta Karmelo Alberdi teknikariak hartu zuten parte.

Askotariko hitzorduak presatatu dituzte hilabete hauetarako: *Carmen* opera, Maika Makovski artista, XX. Nazioarteko Akordeoi Txapelketa, *Ali Baba eta 40 lapurrak* antzezlanana...

Kantu eta dantza nagusi

Egitarau oparoa antolatu dute hilabete hauetarako. Besteak beste, kantuak presentzia nabarmena izango duela adierazi zuen Kultura zinegotziak: *Carmen* opera eskainiko da urriaren 23an; azaroaren 3an Gipuzkoako XVI. Kantu Txapelketa egingo da; azaroaren 17an, 18an, 23an eta 24an *Gigantes y Cabezudos* zarzuela; eta abenduaren 20an, Mississippi Mass Choir taldearen gospel musikaz gozatu ahal izango dute bertaratutakoek.

Dantzak ere bere tokia izango du Amaia antzokian. Izan ere,

Jon Garaik azaldu zuenez, nahiko jarduera minoritarioa izanda, bi hitzordurekin indartu gura izan dute eskaintza. "Ikusleak dantzara gerturatu eta zaletzeko bi emanaldi txertatu ditugu egitarauan. Alde batetik, dantzari gazteak profesionalizazio proze-

suan laguntzeko helburua duen Dantzaz konpainiak bisitatuko gaitu urriaren 20an, *Arte-an* lanarekin". Bestetik, Brodas Bros taldeak *Concierto Concepto* ikuskizuna taularatuko du Amaian azaroaren 11n; kaleko dantza, hip-hop izango da nagusi bertan: "Gazteenek ere ederto pasatuko dute".

Euskal zinema

Bestalde, Kepa Urteagak aurkezpenean adierazi zuenez, aurreko urteetan bezala, euskal zinemarekin hartutako konpromisoari eutsiko diote, eta, besteak beste, *Barrura begiratzeko leihoak* filma eskainiko dute azaroaren lean eta 2an, eta bigarren egunean, gainera, filmaren zuzendari Eneko Olasagasti ere Amaia antzokian egongo da.

Aldaketak egitarauan

Aurkezpenean adierazi zuten, azken orduko aldaketa batzuk egin dituzte urriko egitarauan. Haurrentzako *Azken portua* antzerkia hilaren 27tik 28ra aldatu dute, ordu berean, 17:00etan.

Kulturaz beteta datoz hurrengo hilabeteak; aspertzeko astirik ez, horrenbestez.

ESANAK

"Euskal zinemarekiko konpromisoari eusten diogu"

KEPA URTEAGA | KULTURAZINEGOTZIA

DATUA

86

MILA EURO

Urritik abendura bitartean Amaia antzokiko egitaraurako aurrekontua.

Egurra lantzen ikasteko aukera ARTErekin

Urriaren 23an hasiko da taila ikastaroa Nafarroa etorbidean ARTEk duen egoitzan

Z.V.D.M. | ARRASATE

ARTEk, Arrasateko tailagileen elkartek, hasiberrientzako ikastaroa ipini du martxan. Urriaren 23an hasteko asmoa dutela adierazi dute antolatzaileek. Ordu eta erdiko ikastaroak izango dira eta astean hiru egunetan emango dituzte. Asmoa da 5 eta 10 lagun bitarteko taldea osatzea.

Jose Mari Etxabe ARTEko kideak adierazi duenez, taila gustuko izan dezakegula uste izatearekin aski da izena ematera animatzeko. Gainera, ikasteko gogoia edukitzea funtsezkoa da, eta gauzak astiro-astiro irtetzen direla jakin behar da. "Egurra lantzea trankil hartu behar den jardura da. Norbera gustura egon arte lanean aritu behar da, lasaitasunez". Baina horrez gainera, apur bat

marratzen jakin behar dela gaineratu du Etxabek. "Hastapen ikastaroa oso erraza da, oinarrizko kontzeptuak ikasten dira. Bestelako ikastaroak ere antolatzen ditugu, erdi mailakoa bata, non kutxa txiki bat egiten den; eta bestetik, aurreratua, plastilinan irudia egin ondoren egurrean kopiatzen dugu". Maila horretara iristeko, baina, hasieratik hasi behar da.

ARTEko kide izatea

Ikastaroak antolatzeko arrazoiatariko bat ARTEra jende berria gerturatzeko da: "Gehienak erretiratuak gara, eta, ikastaro hauetan parte hartu eta gustuko izanez gero, taldea berritzen joateko aukera edukiko genuke". Interesatuak dei dezatela 620 17 42 55 edo 618 88 64 32 zenbakira izena emateko.

OHARRAK

ZERKAOSTETA, ITXITA


Urriaren 15eko 09:00etatik hilaren 29ko 10:00ak bitartean Zerkaosteta kalea itxita egongo da zoladura konpontzeko lanak direla eta. Iturriotz 7-bis helbidean garajea dutenak Maalako Errabaitetik sartu ahal dira; horretarako, identifikazio txartelak banatuko zaizkie. Eta garajetik errepidera joateko, berriz, Zerkaostetatik, Portaloitik, Erdiko

kaletik, Olartetik eta Arbolape-tatik pasatu beharko dute.

INKESTAK, KIROLDEGIAN

Kiroldegiko erabiltzaileen iritzia jakin gura dute eta inkesta anonimoak egiten ari dira urriaren 28ra bitartean. Ohar eta iradokizunak egiteko aukera ere egongo da. Interesatuak Musakolako kiroldegian bete ahal izango dute galdetegia.

PUB HAIZEA



Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Astehenean hasiko da futbol eskolako ikasturtea

Futboleko jokatzeari gainera, laguntasuna, errespetua eta halako balioak ikasiko dituzte

Z.V.D.M. | ARRASATE

Astehenean, urriak 15, emango diote hasiera, 17:00etan, aurtengo futbol eskolari. Urriaren 8an gurasoekin bilera egingo da, ikasturteari hasiera emateko prest daude guztiak. Hiru talde egin dituzte, adinka banatuta; 2001 eta 2004. urteen artean jaiotakoak dira. Talde bakoitzean 50 neska-mutiko dabilta; azpitaldeak egiten dituzte eta horietako bakoitzak entrenatzaile bat dauka. Entrenamenduak egin ondoren, partidua ere jokatzeko dituzte, udalerriz ezberdinetan, eta ilusioz aritzen dira neska-mutilak.

Futbola, hazteko kirola

Futbolaren bidez haurrek kirola egitea bai, baina ondo pasatu, lagunak egin eta gauzak partekatzen ikastea bilatzen dutela adierazi du Bittor Arri-

ran Mondrako futbol eskolako arduradunak. "Ez da bakarrik futboleko aritza, hezkuntzarekin dauka zerikusia, eta talde baten parte izatea zer den ikasteko modu bat ere bada".

Aurten ere "ume mordoxka" batek eman dute izena, eta "batzuetan irabazi eta beste batzuetan galdu egiten dela ikasiko dute, zenbaitetan poztu eta bestetan haserretu egingo dira". Gustuko duten kirolaren bidez zenbait balio ere jasoko dituztela adierazi du Arriaranek; tartean, "heziara, errespetua, laguntasuna...". Eta ez da nolana hiko lana; izan ere, "umek futboleko jokatu bakarrik egin gura dute, baina behin dinamikan sartuta, barneratzen joaten dira balio horiek". Baloiari ostikoak emanez eta kirola egin bitartean, hazten joateko modu bat.



Futboleko jokatu eta zenbait balore barneratzen dituzte gazteek. | AIZKORRI.COM

Takoi eta txalo hotsak, flamenkoa ardatz duten bi hitzordu ezberdinetan

Gaur, Kooltur Ostegunak barruan emanaldia eskainiko du 'La Pulga'-k, eta datozen asteetan, berriz, ikastaroa

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Flamenkoa eta Askoa Etxebarrieta *La Pulga* gasteiztarra oinarri izanda, bi hitzordu egongo dira arrasatearren eskura datozen asteetan.

Alde batetik, gaur, eguena, Kooltur Ostegunak hitzorduren barruan *La Pulga eta lagunak* emanaldiarekin gerturatuko da flamenko dantzaria gaztetxera.

Azken orduko aldaketa egin behar izan dute egitarauari dagokionez; hain zuzen ere, *La Pulga*-k txalapartaren eta flamenkoaren arteko elkarrizketa izan gura duen *Berriketan* ikuskizuna ekarri behar zuen, hasiera batean, Arrasatera. Baina taldeko txalapartari batek min hartu duela eta, *La Pulga eta lagunak* izango da, 22:00etan hasita. "Flamenko tradizionala eramango dugu: dantza, gitarra, kantua eta perkusioa".

Flamenko ikastaroa

Bestalde, Gazte Bulegoak antolatuta, flamenko ikastaroa izango da hilaren 16tik abenduaren 18ra. Askoa Etxebarrietak GOIENARI adierazi dionez, ikastaroko parte-hartzaileek "konpasa eta flamenkoaren erritmoak ikasiko dituzte,



La Pulga, Arrasateko gaztetxean. | JOKIN BEREZIARTUA

eta dantza erraz batzuk" irakatsiko ditu.

Jendeak flamenkoarekin aurreneko hartu-eman izan dezala bilatzen du artista arabarrak. "Flamenkoa zer den ezagutzeko modu arina da. Ondoren, gehiago sakondu gura izanez

gero, oinarri bat daukate gauza teknikoagoak ikasteko".

Arrasatearrak gonbidatu gura ditu bere emanaldietara *La Pulga*-k: "Maiz flamenkoa gauza arraroa dela pentsatzen dute askok, eta, emanaldira etorrita, gozatu egiten dute".

Odola ateratzera joateko dei egin diete emaleei

Odola ematera joateko deialdia egin dute. Urriaren 11n, 16an eta 17an anbulatorioan izango da hitzordua, 16:30etik 20:00etara. Urriaren 19an, berriz, egubakoitzean, odola eman gura dutenek Biteri plazan egongo den autobuse-ri joan beharko dute, 09:30etik 13:30era bitartean.

Hilaren 17ra arte eros daitezke Nafarroa Oinezarako txartelak

Urriaren 21ean ospatuko da Nafarroa Oinez, Zizur Txikin, *Kolore & Hitz* lelopean. Salgai daude bertara joateko autobus txartelak, AEDn. Urriaren 17ra arte eros daitezke; elkarreko bazkideentzat 13 euroko prezioa izango du txartelak eta 15 eurokoa, berriz, bazkide ez direnentzat.

1962an jaiotakoek euren eguna ospatuko dute azaroaren 10ean

1962an jaiotakoek azaroaren 10ean ospatuko dute euren eguna: txikiteoa, talde argazkia eta bazkaria egingo dute Saran, besteak beste. Parte hartu gura dutenek urriaren 15a baino lehen sartu beharko dute dirua, Euskadiko Kutxaren kontu honetan: 3035 0001 51 0010123638.



David Guapo. | ARRASATEKO UDALA

David Guapo bakarlariak umorez jantziko du Amaia etzi

Z.V.D.M. | ARRASATE

Zapatu honetan Amaia antzokiko taula gainera igoko da David Guapo *showman*-a. Hala, musika eta berbak, baina batez ere umorea nagusi izango den ikuskizunarekin entretenituko ditu udal antzokira bertaratutakoak, 19:30ean hasita.

Besteak beste, *El club de la comedia* eta *El hormiguero* saioetan kolaboratu izan du Guapok. Hari buruz asko egin da berba, eta, oro har, "ez du bakarriketa saioa egiten, elkarrizketa baizik", esaten dute. Hain zuzen ere, publikoarekin hartu-eman izaten du emanaldietan.

Zapatu arratsalde dibertigarria igaro gura izanez gero, oraindik ere eros daitezke sarrerak, *kutxa.net* helbidean, 943 00 12 00 zenbakian eta Amaia antzokiko leihatilan.

arbolapeta

arrasate

bginko

URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

Hileta eta omenaldi zibilak egin ahal dira

Santa Ana aretoa, haren sarrerako gunea, kanpoko lorategia eta hilerri aurreko parkea dira tokiak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Dagoeneko indarrean da hileta edo omenaldi zibilak egin ahal izateko ordenantza.

Aurrerantzean, beraz, hileta edo omenaldi zibil bat egin gura duen oñatiarrak Udalak hartarako zehaztutako lekuak erabili ahal izango ditu: Santa Ana aretoa eta haren sarrerako kristalezko gunea itxia eta Santa Anako lorategia eta hilerriaren aurrealdeko parke irekia. Gune horietan hileta zerbitzuak egunero egin ahal izango dira, domeka eta jaiegunetan izan ezik. Astelehenerdik egubakoitzera omenaldi zibilak 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egin ahal izango dira. Zapatuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

Kosturik ez

Udalak dagoeneko eskaintzen dituen zerbitzu horiek ez dute kosturik izango. Ekitaldiaren antolatzaileek udal langileen laguntza izango dute eta Udaltzaingoak ere lagunduko du ekitaldia normaltasunez gauza dadin. Bestalde, Udalak eskatzailearen eskura jarriko ditu megafonia, hilkutxari eusteko elementuak eta aulkiak. Erabiltzen diren udal baliabide materialei dago kienez, indarrean dagoen ordenantza fiskaletan ezarritakoa kobratuko da.

Non eta nola

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko lekuak, egunak, ordutegiak eta kostua ez ezik, hilaren 2an argitaratu zen udal ordenantzan baimenak nola eta non eskatu ere zehazten da.

Hileta eta omenaldi zibilen zerbitzua erabili ahal izateko, eskabide orriak behar bezala beteta aurkeztu behar dira udal bulegoetan. Hori egiteko azken epea da ospakizuna egin nahi den eguneko 11:00ak baino lehen. Edozein arrazoiengatik hileta edo omenaldi ospakizuna egiteko aukeratutako lekua erabiltzerik ez balego, udal arduradunak eskatzailearekin harremanetan jarriko dira, egoeraren berri eman

eta beste irtenbide bat elkarrekin adosteko.

Borondatezko hizlariak

Hileta eta omenaldi zibilak egiteko ordenantza behin betiko onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren indarrean badago ere, bertan aurreikusten den zerrenda bat osatzeko dago oraindik. Ordenantzaren 15. artikuluan, Udalak borondatezko hizlarien zerrenda osatzeko ardura hartzen du bere gain. Horretarako, deialdi irekia egin beharko da era horretako ospakizunetan borondatezko hizlari izan nahi dutenek izena eman dezaten. Bitartean, udalbatza osatzen duten kideak arduratuko dira hizlari lana betetzeaz; hala egitea onartzen duten udalbatzako kideak, alegia.

Iraileko osoko bilkuran, irailaren 27an, onartu zuen aho batez udalbatzak hileta eta omenaldi zibilen zerbitzua behin betiko onartzea. Aurretik, uztailako osoko bilkuran eztabaidatu zuten gaia, eta orduan ere aurrera egitearen alde agertu ziren udalbatza osatzen duten alderdi biak, Bildu eta EAJ, nahiz eta oposizioko alderdiaren ustez Santa Ana ez den horrelako ekitaldiertarako tokirik egokiena, Lourdes Idoiaga bozeramaileak adierazi zuen moduan.

Eskatzaileek udal langileen laguntza izango dute ekitaldian

Borondatezko hizlariak izena eman dezakete udal bulegoetan



Antixena gaztetxea. | O.E.

Antixenako erantzukizuna adostuko dute alde biek

MUK dio ez dela erantzule gerta daitekeenaz, eta Udalak eta Gazte Asanbladak bilera egingo dute

O.E. | OÑATI

Oñatiko Udalak eta Gazte Asanbladak bilera egingo dute datozen egunetan, Antixena etxe okupatuan ezer gertatuz gero sor litezkeen kalte edo istripuen erantzule nor izango den adosteko.

Antixena eraikina bera hutsik zegoen azken urteetan eta Udala eta MUko Goi Eskola Politeknikoa harremanetan zeuden eraikin hori Udalak erabiltzeko. Gazte Asanbladak eraikina okupatu ostean, baina, bilerak izan dituzte

te Udalak eta MUK, eta azken horrek adierazi dio Udalariei ez dela erantzule egiten erakin horretan gerta daitekeenaz. Orain, gazteen eta Udalaren artean adostuko dute ardurak nola banatu. Bestalde, Udalak eta MUK harremanetan jarraitzen dute eraikina Udalaren esku uzteko.

Antixenako logo lehiaketa

Bestetik, Antixenako Gazte Asanbladak logo eta irudi lehiaketa deitu du. Orain arte zapaburu bat erabili dute ikur moduan, baina beste ikur bat sortu gura dute, eta lehiaketa deitu dute horretarako.

Antixenako logo lehiaketa hori herri osora zabaldu dute, edozeinek har dezake parte. Azaroaren 10a da lanak aurkezteko azken eguna. Lanak gaztetxean bertan entrega daitezke, edo antixenakogaztetxia@gmail.com helbidera bidali. Hurrengo egunean, azaroaren 11n, aurkeztutako lanak batu eta ikusgai jarriko dituzte, herritarrek euren iritzia emateko. Gehienen gustukoa den irudia kamisetetan, metxeroetan eta izerdi-jertsetetan ikusiko da gero.



Altuna enpresaren parean du geltokia orain autobusak. | O.E.

Zubillagako autobus geltokia aldatu dute, bidegorriagatik

O.E. | OÑATI

Zubillaga auzoko autobus geltokia tokiz aldatu dute. Arrazoia bidegorriko lanak dira.

Zubillaga zeharkatzen duen bidegorriko lanak auzoko zubiraino iritsi dira, eta lan horiek egiteko zubi zaharra itxi egin dute, hilabeterako. Horregatik, autobus geltokia ere tokiz aldatu dute; izan ere, orain buelta eman behar du autobusak geldiunea egin eta gero, eta orain arteko geltokian ez zegoen toki nahikorik maniobra hori egiteko. Gauzak horrela, datozen 30 egunetan, gutxi gorabehera, Altuna enpresaren parean izango dute geldiunea autobusek. Ulma Architectural Solutions enpresaren aurretik sartuko

dira auzora autobusak, orain arte bezala, eta geltoki berriaren aurrean geldiunea egin ostean, hantxe bertan buelta eman eta berrero sartutako bidetik aterako da saihesbidera, handik Oñatirako bidea hartzeko.

Zubillagako bidegorriko lanek, beraz, aurrera jarraitzen dute. Elorregi eta Oñatiko beste zati bat ere, Zubillagakoarekin lotuko dena, esleitzear dago Foru Aldundia.

Gaur, jaiegunetako ordutegia

Bestalde, Pesak gogoratu gura du bihar, urriak 12, egubakoitz, domeka eta jaiegunetako ordutegia izango dutela autobusek.

Latinoamerikako folklore eta gastronomia festa egingo dute bihar

O.E. | OÑATI

Kubako, Kolonbiako, Ekuadorko eta Dominikar Errepublikako folklorea eta gastronomia uztartuko dituen festa egingo dute bihar, egubakoitza, herriko plazan: kulturen arteko II. topaketa-festa.

11:30ean iritsiko dira parte-hartzaileak plazara eta umeendako pintura lehiaketa eta gastronomia latindarra proba-

tzeko aukera egongo da. Ondoren, dantza erakustaldia izango da, eta gero, bazkaria berdura plazan. Jaiak Iturri Pubean jarraituko du gauean.

Oñatitik Madrilera

Bestalde, hilaren 19an eta 20an, Europan bizi diren kubatarren VII. topaketa egingo dute Madril, eta autobusa jarriko dute Oñatitik hara joateko.

Gaztelekuko sotoa egunero dago zabalik, ume txikiak eta euren gurasoek jolas egiteko

Dagoeneko zabaldu dute Gaztelekuko sotoa, ume txikiak eta euren gurasoek elkarrekin aterpean jolastu ahal izateko. Egunero dago zabalik: lanegunetan, 17:00etatik 20:00etara, eta zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Derrigorrezkoa da umearekin guraso edo arduradun nagusi bat egotea umearekin, ez baita zaintza zerbitzurik eskaintzen. Nagusiek ere egin dezakete jolas umeekin.

Udaletxea zabalik egongo da bihar eta Zubikoa kiroldegiak jaiegunetako ordutegia izango du

Udal zerbitzu guztiek ez dute egutegi bera biharko, egubakoitza, urriak 12. Udaletxea, esaterako, eta udal bulegoak zabalik egongo dira, ohiko ordutegia izango dute. Zubikoa kiroldegiak eta liburutegiak, aldiz, jaiegunetako ordutegia izango dute. Hau da, kiroldegia 09:00etatik 13:30era egongo da zabalik eta liburutegia, haurrena zein nagusia, itxita egongo da.

Egaña: "Pozik gaude jaietan parte-hartze handia egon delako"

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bukatu dira aurtengo San Migel eta Errosaixo jaiak, eta ondo bukatu ere, udal ordezkarien iritziz. Jaien gaineko balorazio orokorra astelehenean, hilak 15, egingo dute udal ordezkariak. Biler horretan elkartuko dira, besteak beste, Kultura Saileko langileak eta Udaltzaingoko kideak, eta jaietako atal ezberdinen inguruko balorazioa egingo dute.

Hala ere, Manu Egañak, Kultura zinegotziak, GOIENARI aurreratu dion moduan, "jai parte-hartzaileak izan dira, eta alde

horretatik oso pozik gaude. Horri begiratuta, balorazioa positiboa da". Hala ere, xehetasun gehiago astelehenean egingo duten bileran aztertuko dituzte.

Berritasunak

Balorazio orokorraren barruan, aurtengo berritasunekin asmatu duten edo ez ere aztertuko dute udal ordezkariak; esaterako: sokamuturra kaleetara zabaltzea, herriko sagardogileek euren txokoa izatea, jaioberriei ongietorria egitea eta herri bazkarian herriko produktuak erabilitako menua prestatzea.



Euren itsasontzietan etorri ziren bikingoak Oñatira.



Simpsondarrak jaietan.



Angry Birds jolasa, zuzenean.



Ljito koadrilak Aita Madina kalean jarri zuen kanpalekua.



Guardia Zibilen kale-agerraldia.



Errege etxeko kideak ere Oñatin izan ziren, elefante eta guzti.



Teknologia berrien kofradekideak.



Bikotea, dotore.



Udal Musika Bandako kideak ere mozorrotuta egin zuten kalejira.



Espazio-ontziak ere lur hartu zuen Oñatiko kaleetan.



Mamu harrapatzaileak ere kalean gora eta behera ibili ziren..



Kubatik etorritako emakume koadrila ere festarako prest.



Espinakak jan, eta indartsu!



Batukada martxosoak kaleak girotu zituen.



Artekariak, lanean.



Kolore guztietako jantziak herriko kaleetan. | ARGAZKIAK: OIHANA ELORTZA, MAIDER ARREGI

Chirlaquek Bilboko banda zuzenduko du 28an

Euskaldunan izango da kontzertua; haren aita, Miguel Gonzalez Bastida, omenduko dute saio berean

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Alfredo Gonzalez Chirlaquek Bilboko Udal Musika Bandak urriaren 28an Euskalduna jauregian emango duen kontzertua zuzenduko du.

Bilboko Udal Musika Bandak gonbidatuta zuzenduko du kontzertua, banda horren udazkeneguko egitarauaren barruan. Baina ez da dena horretan geratu: emanaldi berean, haren aitari, Miguel Gonzalez Bastidari, omenaldia egingo diote.

Txomin Muxikaren gonbita

Gonzalez Chirlaquek azaldu duenez, 2007an, Bergarako Udal Musika Bandaren 175. urtemuga ospatzeko egin ziren ekitaldien barruan kontzertua egin zuten zenbait banda profesionalek gurean; Bilbokoak, besteak beste. Orduan aipatu zion Txomin Muxikak, Bilboko bandako gerenteak, kolaboratzeko aukera lehen aldiz Gonzalez Chirlaqueri. Eta joan den uztailan gauzatu egin da: "Txomin Muxikak deitu zidan. Egutegia prestatzen ari zirela esan zidan eta ea euren kontzertu bat zuzendu nahiko nukeen. Nazionalitate askotariko zuzendariak gonbidatzen dituzte halakoetarako", esan du Gonzalez Chirlaquek.

Muxika Bergarako bandaren oso zalea da, oso gertutik ezagutzen



Gonzalez Chirlaque, musika eskolan duen bulegoan. | MONIKA BELASTEGI

du Bergarako Udal Musikaren ibilbidea eta baita Gonzalez Chirlaquerena ere; badaki Bergarako zuzendariak askotariko estiloak lantzen dituela bandarekin -musikalak, zarzuela...-, konposizio eta moldaketa ugariaren egilea dela eta Bergarako Orkestra Sinfonikoa ere zuzentzen duela.

Gonzalez Chirlaquek "oso pozik" hartu du bilbotarren gonbitea, "ohikotik irteteko aukera paregabea" dela uste du eta "talde profesional batekin lan egiteak zailtasun handiagoko obrak jotzeko aukera" ematen duela ere badi.

Egitaraua hark hautatu du

Kontzertuko egitaraua hark aukeratu du; bere "estiloa" ezarri nahi izan dio. 45 bat minutuko bi atal izango ditu eta espresuki bandarako sortutako obrak aukeratu ditu. Lehen zatirako hiru obra aukeratu ditu; besteak beste, Chirlaquek berak Bergarako bandaren 175. urtemugarako konposatutako 1832 obra.

Bigarren zatirako, berriz, haren aitak, Miguel Gonzalez Bastidak, konposatutako bandarako lau obra aukeratu ditu.

Aipatzekoa da horietako batekin, *Campo de rosas* izeneko pasodoblearekin, Zestoan jokatutako Estatuko lehiaketa irabazi zuela 1960. urtean. Are gehiago, Bilboko Udal Musika Bandak estreinatu zuen. Horren ondotik, *Mendia eta Itsasoa* prelude sinfonikoa joko dute, Gonzalez Chirlaqueren esanetan, "aitaren alde erromantikoa eta teknika gehien erakusten duen obra deskriptiboa". *Lorea* joko dute, eta amaitzeko, Miguel Gonzalez Bastidaren horren esanguratsua den *Ezpata-dantza*. "*Amaiaren ezpata-dantza* ezaguna tonu maiorrean jotzen da eta aitak tonu minorrean egin zuen berea".

"Aita pozik dago"

Gonzalez Chirlaquek esan duenez, aita Miguel oso pozik dago Bilbon egingo dioten omenaldiarekin, eta, 92 urte dituen arren, ez du hutsik egingo hilaren 28an Euskalduna jauregiko hitzordura. Bilboko udal ordezkariak, gainera, oroigarria emango diote. Kontzertua auditoriumean izango da, 12:00etan.

Bestalde, Bergarako bandak domekan egingo du urriko kontzertua. 12:30ean izango da, Udal Pilotalekuan. Bost obrako egingo dituzte: *La Millor Terra del Mon*, *Overture To A New age*, *Japonesita*, *Gigantes y Cabezudos* eta *A Highland Rhapsody*.

ESANAK

"Oso pozik hartu dut Bilboko gonbidapena"

ALFREDO GONZALEZ CHIRLAQUE

Mendiko ganadu feria izango da bihar Elosuan

M.B. | BERGARA

Bihar, egubakoitza, izango da Elosuan 34. mendiko ganadu feria, 09:00etan abiatuta.

Aurrekoetan bezala, aurtengo edizioan 150-200 ganaduburu egongo dira ikusgai. Epelde eta Lutxurdio trikitilariak alaituko dute feria eta Elurmendi elkarteak jarritako txosna ere egongo da pilotalekuan. Ganadu lehiaketako sari-emateari dagokionez, 13:30ean izango da.

Berrikuntzak ere egongo dira goizean: hain justu ere, *Nafar sustarren bila*, *kalejira gaztelura* delako ekimena deitu dute Nabarraldeko ordezkariak 12:00etarako.

Nafarroako erresumako garaietan gaztelua zegoen lekura egingo dute ibilaldia. Zantzarrek lagunduta egingo dute kalejira hori eta Nafarroako bandera eta ekitaldi txiki bat egingo dituzte bertan, "jendeari egun baten Nafarroa izan ginelagoratzuz", antolatzaileen esanetan. Bestalde, historia berreskuratzeko asmoz, indusketak egin nahi dituztela ere aurreratu dute.

Arratsaldean, zaldi proba egongo da, 17:30ean, eta ondoren erromeria, eta, egunari amaiera emateko, Bergarako Garate eta Shut Up taldeek kontzertua egingo dute, 22:00etan.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



AZKEN FASEA

SAN LORENZO AUZOA
BERGARA

167.500€-tik aurrera

27.869.655 pta

Ez itxaron
gehiago!

BEZ a %4
abenduaren
31 arte

1, 2 eta 3 logela, sukaldea barne
Garaje eta trastelekuak

Etxebizitzen
bukaera
2012

Eraikitzailea

INGESLAN
CONSTRUCCIONES



Sustatzailea



Argibideak
eta Salmenta

943 424 430

www.ormak.es

Astelehenean hasita emakumearen aldeko aldarrikapenak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Astelehenean, hilak 15, hasiko dute *Martxoak 8... egunero izan dadila!* lelodun astea. Emakumeen eskubideak aldarrikatzeko astea da, hainbat eratako ekintzekin.

Astelehenean, gainera, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela jakinik, *Gaur zortzi azokan* ikus-entzunezkoa eskainiko dute (Arkupe, 19:00). Ekitaldi nagusia, ostera, eguaztenean, hilak 17, egingo dute (Herriko Plaza, 18:00). Udaleko, elkarteetako eta hainbat arlotako ordezkariak elkartzeko dira aldarrikapenak egiteko; ondoren, antzerkia izango da; eta hainbat herrialdetako pintxo dastatzea.

Eta egubakoitzean, hilak 19, hainbat adinetarako ekitaldiak daude: jolas ez sexistak eta grafiti ikastaroa, plazan (17:00); Paula Kasares irakaslearen hitzaldia, Arkupen (18:00); *Emakumearen jokoerak hizkuntzaren jarraipenean*; eta kontzertua, Kurtzebarriko kantuan (22:30); Kokein eta On taldeak.

Kirol jarduerak ere izango dute lekua datorren astean: frontenis txapelketa (izenemate epea

KIROL JARDUERAK

FRONTENIS TXAPELKETA

Urriak 15-19. Izen-ematea gaur bukatuko da.

SASKIBALOI ERAKUSTALDIA

Urriak 19 Ibarra kiroldegian (19:00).

ESKALADA ERAKUSTALDIA

Urriak 19 Ibarra kiroldegian (19:00).

ARETO FUTBOL SAIOA

Urriak 20 Andramariko kantuan. Saio irekia (16:00).

gaur bukatuko da: kirola@aretxabaleta.net; saskibaloierakustaldia, Eskoriatzako saskibaloierakustaldia, baillarako neska eskalatazileekin; eta areto futbol partidu irekia hurrez ratzen diren neska guztiekin.



Saria Paloma Martinezendako

Urriko lehen saria banatu du egunotan Aretxarte merkatarien elkarteak, eta Paloma Martinezek jaso du masaje lasaigarria hartzearen Lasai masaje zerbitzuan. Gertu janari-dendako Sonia Moralesek eman dio 50 euroren balioa duen saskia, eta Martinezek pozik hartu du semea alboan duela.

Hilaren 20an Aralarko parkera joango dira Murruxoko kideak

Lizarrustitik Larraitzera ibilaldia antolatu du Murruxok urriaren 20rako, zapatua. Izen emateko Murruxora jo martitzenean (19:00-20:00). Bestalde, urriaren 17an bukatuko da Murruxoren argazki lehiaketara aurkezteko epea. 2013ko egutegia egingo dute argazki irabazlearekin.

Argazkia ateratzeko dei egin du EH Bilduk gaur arratsalderako

EH Bilduren aldeko aretxabaletarren argazki erraldoia atera gura dute gaur, eguena, Herriko Plazan (18:00).

Urriaren 21eko hauteskundei begirako argazkia izango da, eta ahal den herritar gehien elkartu gura dituzte; hori horrela, EH Bilduren aldeko guztiei dei egin diete.

'Hil arte bizi' antzezlanaren gaur Txalo taldearekin

M.A. | ARETXABALETA

Antezlanaren aldeko apustua egin du Kultura Sailak urri-rako -zinema oraindik ez da iritsi-, eta bai helduek, bai umeek ikuskizun dotoreak dituzte. Gaur, eguena, *Hil arte bizi* lana eskainiko du Txalo taldeak Arkupeko Zariaia aretoa (19:00) -sarrera, 4 euro-. Iker Galartza, Sara Cozar eta Joseba Usabiaga aktore eza-gunek betiko kontuen gainean hausnartuko dute hiru lagun gorabeherak kontatuta: adiskidetasuna, maitasuna, heriotza...

Eta datorren egunean, hilak 18, ostera, *Divinas* antzezlanaren izango da -gaztelaraz-, Arkupen (19:00), Oihulari Klown taldearen eskutik.

'Jon beldurgabea' umeek

Domekan, hilak 14, bost urte-tik aurrerako neska-mutikoen *Jon beldurgabea* antzezlanaren aurkezpena (17:00) -sarrera, 3 euro-. Txalo taldeak eskainiko du hau ere, eta Grimm anaien ipuin ospetsuan oinarrituta egon arren barre eragiteko eta ondo pasatzeko apropos egokitu dute.

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Gurea
TABERNA
Lotoak eta
kinielak



Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64

Akaitegi
EXPRES
santakurtz 16, aretxabaleta

Gosariak

Astelehenetik ostiralera (09:00-00:00)

Larunbat eta Igandeetan (12:00etatik zabalik)

Pintxoak

IOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak



Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08

Etan eta dastatu gure pintxo goxo-goxuak astebukaretan

URBALTZ
taberna

Mitarte 19 - 20550
ARETXABALETA

Banatu dituzte Udako Argazkien Lehiaketako sariak

Antolatzaileak oso pozik gelditu dira lehenengo edizioak herritarrengandik izan duen harrerarekin

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA
Martitzenean Ibarraundi museoa banatu zituzten Eskoriatzan lehenengo egin den Udako Argazkien Lehiaketako sariak.

Saridunak

Sariak banatzeko orduan hiru maila banatu dituzte: 15 urtera arteko mailan berdinketa egon da, bakoitzak 19 boto jasota, eta irabazleak dira Leire Uribealgo *Ze gustura nagoen!* argazkiarekin eta June Larzabal *Kalatxoriak* izeneko lanarekin. 16 eta 49 urte arteko kategorian, berriz, Eli Gabilondok jaso ditu boto gehien, 44, hain zuzen, *Canada is different* argazkiarekin. Bukatzeko, 50 urtetik gorako mailan Juan Antonio Uriarte izan da saritua, 19 botorekin, *Buona Sera* argazkiarekin. Irabazleek bertako produktuz osatutako otarra jaso zuten.

Balorazio positiboa

Ibarraundi museoak antolatutako lehiaketa izan da eta jaso zituzten 42 argazkietatik 30 onenekin erakusketa zabaldu zuten herritarrek lanak ikusi eta euren gustukoenei botoa emateko. Facebook eta mail bitartez ere jaso dituzte botoak.

Antolatzaileak pozik gelditu dira, hauxe esan digu Eneritz Zubiak, Ibarraundiko langileak: "Gustura gaude lehiaketaren harrerarekin; argazkiak ondo jaso genituen eta herritarrek euren botoak eman dituzte, pozik gaude harrerarekin".



Argazki lehiaketako irabazleak sariekin. | A.T.



Ze gustura nagoen! argazkia. | LEIRE URIBESALGO



Buona Sera izeneko lana. | JUAN ANTONIO URIARTE



Kalatxoriak izenburuko argazkia. | JUNE LARZABAL



Canada is different lana. Boto gehien jaso dituen argazkia. | ELI GABILONDO

NIRE USTEZ

MARIJO PAGALDAI



Eskubideak eta betebeharrak

J oan den astean Pilar del Riori, Jose Saramagoren alargunari, entzun nion gogoeta bat eta oso egokia iruditu zitzaidan. Horregatik, gaur artikulua hau irakurtzen duzuen pertsona guztiokin partekatu nahiko nuke Saramagoren alargunari aurrekoan entzundakoa.

Denok egongo gara ados gizakiok ditugun eskubideetan; horrela adierazten eta eskatzen dugu sarritan, gainera, eta horrela jasotzen du *Giza eskubideen aldarrikapen unibertsalak* ere, eta denok dakigu oraindik oso urrun gaudela hori lortzetik.

Hala ere, gehienetan ahazten zaiguna horren osagarria izaten da; hau da, *Giza betebeharrak eta erantzukizunak*, hain zuzen.

Izan ere, giza eskubide bakoitzaren atzean, osatzen duen giza betebeharrak bat dagoela iruditzen zait. Beste gizakiekiko betebeharrak, elkartasuna edo solidaritatea, erantzukizuna, zintzotasuna, errespetua... Norberaren baloreen aurrean fidelitatea... Naturarekiko errespetua... Seguru denon artean zerrenda osatuko dugula eta gogora etortzen zaigun eskubide bakoitzeko, posible egiten duen betebeharrak bat irtengo zaigula guztioi. Bata bestea gabe ezin da existitu.

Mesedegarria izango litzateke munduan zehar ibiltzea esku batean gizaki bezala ditugun eskubideen aldarrikapena hartuta eta beste eskuan gure eginbeharren ardura dakargula.

"Giza eskubide bakoitzaren atzean, betebeharrak bat dago"

Atxorrotzeko indusketak ikustera joateko bisitak hasiko dituzte gaur

Indusketen bigarren fasean murgilduta daude hilaren 1a ezkerro Atxorrotzen, eta 15era arte jardungo dute horretan. Lanean dabiltzala azalpenak jasoko dituzte bisitariak. Gaur eta datorren astean Luis Ezeizako bi ikasle taldek egingo dute bisita, urri amaieran Almendik bi talde joango dira eta azaroan helduekin egingo dute bisita bat.

Jasangarritasun Azoka izango da datorren asteburuan Eskoriatzan

A.T. | ESKORIATZA
Datorren asteko zapatuan eta domekan jasangarritasunari buruzko informazioa jasotzeko aukera egongo da Eskoriatzan. Zapatuan, hilak 20, hitzaldi bat emango dute Ibarraundi museoa, 10:30ean. Arratsaldean, berriz, Sorautzeko baserria bisitatuko dute hitzaldian entzundakoak praktikan jartzeko.

Domekan, hilak 21, Jasangarritasun Azoka egongo da herriko plazan 11:00etatik 19:00ak arte, eta Euskal Herriko txokoetatik etorritako enpresa ugariak postuak ikusgai egongo dira.

Horrez gain, kultura etxeak antolatuta, bigarren eskuko azoka ere egingo da domeka horretan.

Aldaipe elkarteak 178 ehiza-postu zozketatuko dituzte denboraldi honetan

A.T. | ESKORIATZA
Aldaipe elkarteak atzo, eguaztena, hasi zuten ehiza zozketarako denboraldia, eta azaroaren 30ean amaituko zaie horretarako aukera.

Guztira, 178 ehiza-postu dituzte banatzeko aurretik: batek, 105 postu dituzte Lete, Apotzaga, Marin eta Capiko zonan; bestetik, 73 postu dituzte Aratz

-Aizkorriko parkean (Alabita-Arangurenen).

Zozketak Aldaipeko elkartean egiten dira, Intxaurtxueta 9 baxuan, hain zuzen. 18:30etik 20:00ak arte eta sozio, federatu eta adinaren arabera, besteak beste, diru kantitate desberdina ordaindu behar da ehizako postuetako zozketetan parte hartzeko.



Antzuola-Aiherrako senidetzearen erreleboa gazteek dute orain. | MAIDER ARREGI

Autobus bat irtengo da Aiherrara senidetzea ospatzera

Bi herrietako gazteei erreleboa pasa diete; orain, ia 30 urteko senidetzearen etorkizuna dira

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

1984an jaio zen Antzuola-Aiherra harremana, orain 28 urte, alegia. Gainera, harremanaren sorreran, hazia Juan Antonio Iturbe eta haren emazte Ima Beristainek, gaur egungo Antzuolako alkateak, erein zuten. Mendian aihertar batzuekin elkartu zirenean, hain zuzen ere. Orain arteko harremanaren gaineko balorazio oso ona egiten dutela azaldu digute Udaletik. "Harreman naturala da. Horrelako senidetzeetan harremanek instituzionalak izateko joera izan ohi duten arren, Antzuolaren eta Aiherraren arteko senidetzea jendearen, herritarren artekoa da. Urtean

zehar izaten ditugun ekitaldietan ere gogoan izaten dugu elkar; hala, gonbidapenak ere egiten dizkiogu elkarri hainbat ekitalditan parte hartzeko: bai eurak hona etortzeko, bai gu hara joateko", gaineratu digu Jone Larrañagak, Antzuolako Kultura teknikariak.

Gazte zein helduen arteko harremana sustatzen jarraitzen dute bi herrietako biztanleek.

"Aiherrakoak eta antzuolarrak elkartzea eta gure arteko adiskidetasuna sendotu eta harremanari etorkizuna ematea da asmoa. Betiko lagun onak elkartzen direnean bezala, ondo pasatzeaz gain, kontuak esan, herriko berriak

partekatu eta elkarren artean egin daitekeena aipatzen nahi dugu", azaldu digu Larrañagak.

Etorkizuna, gazteak

Harreman horri eutsiz, orain arte bezalatsu jarraituko dutela hazia ereiten esan digu Larrañagak. "Bereziki umeen eta gazteen arteko harremana sendotzea da gure helburua, etorkizuna eurak direlako. Bestetik, bi urte barru 30. urteurrena ospatuko dugu, eta orduan bai, izango da zerbait berezia", dio.

Egun borobila

Antzuolarrez betetako autobusa goizeko zortzi eta erdietan irtengo da herrietik. Ondoren, Bastida ezagutuko dute. Izan ere, 700 urte bete ditu Bastida herriak eta haren historia eta sorrera eza-gutzeko aukera izango da.

Jai girorik eta festa girorik ez dela falta izango esan digute. Ohi bezala, bazkaria egingo dute, eta dantzaldiaz, musikaz eta kantaldiaz gozatzeko aukera ere izango da. "Bertako jendeak esku zabalik hartzen gaitu. Jolasean eta kantuan, hainbat adiskidetasun egin izan ditugu", azaldu digu Ima Beristainek.

NIRE USTEZ

ANTONIO DEOGRACIAS



"Erregina egun batez"

Saio hartan gizontxo batek agintzen zuen; ia soldadutzatik kanpo geratu zen tamainagatik. Zegoen kate bakarrean *Erregina egun batez* telebista saioa ematen zuten eta ez ziren Freddy Mercury eta Queen, baina orduan ere baziren fama-tuak izan nahi zuten tipak.

Tamalez gaur egun gauzak ez dira, horretan behintzat, askorik aldatu. Oraindik ere neskato askok "printzesa" izan nahi dute eta mutiko askok, berriz, "erregina" bizi guztirako... Ez diot gaizki dagoenik, bakoitzak bere bizitzarekin nahi

duena egin dezake; nik neuk ere, orduan, zeluloideko izar izan nahi nuen!

Urteak joan dira krudelki eta ez nau ikusi inongo Almodovarrek.

Nire gazte itxura urtzen joan doa gauero eta baliteke inoiz filmatua ez izatea.

Baina aurten herriko jaietan izan bazarete, nire hondoratzearen azken hondarrekin desfilatzen ikusiko ninduzuen, "moreriaren" estandartea eramaten.

Badakit ez dena izarren ametsetako papera, baina *made in Spain* murrizketak ikusita, ez dago gaizki, *jainkoe*n okasoan bizirauten segitzeko behintzat.

Horregatik ez dut amore ematen. Baliteke, espero ez oso denbora luzean izatea, egun batez erregina izatea lortzea, herri telebistaren baten bada ere; lehenago guztiak ixten ez badituzte.

Kirol taldeek Udalak emango dituen laguntzak eskatzeko epea zabalik dute

M.A. | ANTZUOLA

Herriko kirol taldeek dirulaguntzak azaroaren 30era bitartean eska ditzakete. Guztira, 5.500 euro banatuko ditu laguntzetan Udalak.

Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2012ko irailaren 20an. Era berean, 2012ko urriaren 2an egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzordeak ondoko erabakiak hartu zituen: lehenengoa,

Antzuolako kirol taldeei dirulaguntzak esleitzeko deialdia egitea; bigarrena, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita eta 2012ko azaroaren 30era arteko epea ematea eskabideak aurkezteko; hirugarrena, 2012ko aurrekontuan 481.452 partidari zendatuta dauden 5.500 euroen erabilpena baimentzea helburu horretarako.

OHARRAK

KALE NEURKETA

Euskararen kale erabileraren neurketa egin berri dute. Soziolinguistika Klusterrak egin du eta aurkezpena egunean, hilaren 18an, egingo da 18:30ean, Orlaranen.

EH BILDUREN EKITALDIA

BECen zapatuan egingo den ekitaldirako autobusa 15:45ean irtengo da Torresoroa paretetik.

Oraindik aukera dago autobusean izena emateko. Herriko tabernetan edo ehbilduantzuola@gmail.com helbidera idatzita eman daiteke izena.

TXISTULARIEN KALEJIRA

Domekan irtengo dira antzuolako txistulariak herriko kaleetan barrena gozeresia eskaintzera. Ohi duten moduan, goizeko hamarretan izango da.

Erretiratuek Eltziegora irteera antolatu dute

Ipuin saioa, Errioxara irteera eta merienda prestatu dituzte herriko erretiratuek urrirako

M.A. | ANTZUOLA

Herriko erretiratuen elkarteak irteera antolatu du Errioxako Eltziego herrira. Urriaren 24an, eguaztenean, egingo dute irteera.

Han, hamarretakoa, bisita gidatua eta bazkariak gozatzeko aukera izango dute, besteak beste.

Arratsaldean, baina, Eltziegotik Logroñora joango dira, han

arratsalde-pasa ederra egiteko asmoz. Egun osoko irteerak 30 euro prezioa du, pertsonako.

Hurrengo egunerako, urriak 25, merienda eta kina antolatu dituzte erretiratuen elkarteak.

Irteerarako eta meriendarako izena emateko egunak eta tokia: urriaren 16an, martitzenean, eta 17an, eguaztenean, arratsaldeko lauretatik seietera erretiratuen elkartera jo beharko dute interesa dutenek izena ematera.

Helduendako ipuinak

Virginia Imazen ipuin emanaldia gozatzeko aukera egongo da urriaren 18an, egunean, Torresoroan, 17:00etan. *Umbral*es ikuskizuna eskainiko du. Herriari zabalduta dago, baina ez haurrei. Izan ere, helduendako ipuin emanaldia izango da Virginia Imazek eskainiko duena.

Imazek bi munduren arteko metafora egiten du: errealaren eta ipuinen munduaren artekoa. Ipuinak entzuteko direla eta ez irakurtzeko dio. Ikuskizuna 15 urtetik gorakoendako da; jende gazte eta helduendako. Izan ere, ipuinetan, eduki erotikoa modu finean aurkeztuko du.

EGAÑA

Era guztietako arrotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

IGELTSEROTZA

Ibon Zabalo
Iban Iraeta

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
Mugikorrek:
615 76 56 50 / 615 76 56 51
zabalosl@hotmail.com

ZAHAR BERRITZEAK:

Birgaitzeak

Fatxadak

Teilatuak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Udalaren argazki lehiaketa martxan da

2013ko egutegirako erabiliko dira argazkiak; izena emateko azken eguna azaroaren 7a da

J.B. | ARAMAIO

Datorren urterako Udalaren egutegi ofiziala osatzeko argazki lehiaketa martxan da. Egutegi ofizialaz gain, aurkezten diren irudiak Udalaren argazki artxiboa osatzeko erabiliko dira. Argazki onenaren egileak 200 euro irabaziko ditu; hori izango da sari nagusia. Baina, urtero moduan, izango dira bestelako sariak. Adibidez, urtaro bakoitza ondoen islatzen duten argazkien egileak 100 euro jasoko dituzte. Gainera, 2013ko egutegi ofiziala osatzeko beste zazpi argazki aukeratu dituzte epaimahaiak, eta haiei sari sinbolikoa emango diete.

Argazki guztiak CD baten

Parte hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu. Argazkiek lehenago argitaratu gabeak izan behar dute eta aurten ez dira paperean aurkeztuko; hau da, CD baten aurkeztu beharko dira.

Gainera, argazkiak pertsonaren baten lehen planoak baldin badira, haren baimena ere aurkeztu beharko da. Lanak nola entregatu behar diren eta gainerako baldintzen berri izateko, udaletxera deitu behar da (945 44 50 16).

Lanak udaletxean edo Kultur etxean entregatu behar dira azaroaren 7a baino lehen.



lazko argazki irabazlea, Kurtzeta inguruan hartutakoa. | ANDONI EPELDE

Itur Zuri emakume elkartearen pintura lehiaketak 21 urte beteko ditu bihar; aurten ere, hainbat sari

Aramaio eta bere ingurua gai hartuta Itur Zuri elkartearen pintura lehiaketa izango da bihar. Edonork har dezake parte eta 14:00ak arte entregatu ahal izango dira lanak. Lehen hiruren artean 1.600 euro banatuko dira: lehenak 700 euro, bigarrenak 500 eta hirugarrenak 400. Herriko onenak 150 euro jasoko ditu. 16 urtetik beherakoendako ere ez da saririk faltako: hiru onenek 150 euroko balioa duen txartela jasoko dute pintura materialean gastatzeko. Margo-lanekin erakusketa egingo dute urriaren 20ra arte.

Aramailur osasuntsu dago, saskian produktu berriak sartzeko asmoz

Kontsumo taldeak ia bi urte bete ditu; orain, hiltegi zaharrean elkartzeko dira martitzenero, 19:00etan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaio Basarri Barri fundazio barruan dagoen Aramailur kontsumo taldea aurrera doa. Ia bi urte pasa dira martitzenero biltzen direnetik eta Mikel Ocejá presidentearen arabera taldea osasuntsu dago: "Eraikitzen jarraitzeko asmoz gabiltza eta ateak irekita daude gura duenarendako".

Duela urte bi hasi zuen bidea taldeak eta ordutik asko ikasi dutela dio Oceják: "Taldea sortu zenetik asko ikasi dugu eta esperientzian oinarrituz familia bakoitzak etxera daraman saskia hobetzen ari gara". Izan ere, ia astero nobedaderen bat aurki daiteke saskian. Denetariko barazkiak, esnea eta gazta dira saskiko izarrak baina asteen adibidez, sandia bana eraman dute etxera. Horrez gain, moxal-haragia ere hasi da sartzeko eta asmoa dago Aramaiokoak ez diren zenbait produktu ere saskiratzeko, besteak beste, ardoa, arroza eta irina.

Aurrerantzean, hiltegi zaharrean

Egun, bederatzita familiak osatzen dute taldea. Aramaiokoak dira gehienak, baina badaude Legutiotik etortzen diren bi familia. Orain arte udaletxeko arkupeetan elkartu izan dira eta asteen lehengoz hiltegi zaharrean egin dute hitzordua. Alex Mendikute taldeko kidearen arabera, askoz egokiagoa da leku berria: "Eguraldi txarrarekin hobeto gaude hiltegi zaharrean. Gainera, hozkailu txiki bat jarri dezakegu, ekoizleek haragia bertan utzi eta



Irailaren 25eko banaketa. Orain, hiltegi zaharrean batzen dira. | J. BEREZIARTUA

ESANAK

"Esperientzian oinarrituz saskia hobetzen ari gara"

MIKEL OCEJÁ | ARAMAILURKO PRESIDENTEA

ondo kontserba dadin". Mendikutek produktuen kalitatea gorai-patzeaz gain, kontsumo taldearen filosofia defendatzen du: "Bertakoa, garaikoa eta ekologikoa dena hartzen dugu eta uneoro dakigu nora doan dirua".

Ateak zabalik daude, beraz, eta izena emateko nahikoa da martitzen baten hiltegi zaharrean agertzea, 19:00etan.

Asteon hasi dute pilates ikastaroa, 13 laguneko bi taldetan banatuta

Martitzenetan eta eguenetan elkartzeko dira, udaletxeko osoko bilkuren aretoan

J.B. | ARAMAIO

Aurten, bigarren urtez, pilatesa egiteko aukera izango dute aramaiotarrek. Klaseak asteon hasi dira, eta oraingoz iaz baino jende gutxiago animatu bada ere, arrakasta handia izan du deialdiak.

Irakaslea iazko bera da, Danel Soria aretxabaletarra. Goiena Sport enpresarendako egiten du lan Soriak, eta, kontatu digunez, martitzeneko lehen klasea ondo joan zen: "Hasteko, pilatesa zer den eta zertarako den azaldu nien ikasle berriei. Izan ere, iaz egon

zirenetako askok errepikatu egin dute. Azalpenaren ondoren arnasketak lantzen hasi ginen. Oso ondo joan zen". Hastapen ikastaroa izan arren, Goiena Sport enpresakoek progresio bat aurreikusitako dute: "Nork bere erritmoa dauka eta ez da erraza izaten, baina ez dut uste arazorik egongo denik", dio irakasle aretxabaletarrak.

Aurten, aerobika ere bai

Aurten 26 lagunek eman dute izena. Iaz jende gehiagok eman zuen izena, baina Soriak azaldu digu aurten aerobika egiteko

aukera dagoela eta horrek, akaso, jende gaztea animatu duela. Izan ere, "batez beste 40 urte" ditu pilatesko ikasleak. Soriak argi utzi digu adin guztietarako egokia dela, batez ere bizkarreko minak dituztenendako. Bi taldetan banatu dira: martitzenetan 19:30etik 20:30era elkartzeko direnak eguenetan 20:30etik 21:30era batzen dira, eta alderantziz.

Osoko bilkuren aretoan

Aramaion gimnasiorik ez dagoela eta osoko bilkuren aretoan biltzen dira pilatesa egiteko. Bixen



Pilates ikastaroan 26 lagunek eman dute izena, oraingoz. | GOIENA

Calzon Goiena Sport enpresako arduradunak azaldu digu ez dela lekuri aproposena: "Egokiena litzateke beste gela bat izatea, berogailu, ispilu eta horrelakoenkin. Hala ere, moldatzen gara". Ikastaroa martxan badago ere,

izena emateko aukera dago oraindik: "Iaz azaroan hasi ginen, baina urtarrilean baten bat ere animatu zen", gogoratzen du Soriak. Izena emateko udaletxera deitu behar da, besterik ez: 945 44 50 16.

ELGETA

Kantuan egiteko aukera paregabea izango dugu Elgetan hilaren 28an

Entseguak ere antolatu dituzte; martitzenean 21:00etan da hurrengoa

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udazken Koloreak Elgetan ekimenaren barruan *Elgeta kantuan* antolatu du Udalak. Urriaren 28an, domeka, izango da, eta entseguak antolatu dituzte bertan parte hartu gura dutenek kantuak ikas dezaten.

Ekimen berria da Elgetan, baina ez inguruko herrietan, eta helburua da eguerdi partean herritarrek zein kanpotik etorritako bisitariak kantuan ipintzea. Elgetako abesbatza hasita daude errepertorio bat aukeratu eta zenbait kantu entseatzeko, eta egun horretan Gardoki soinu-jo-

le aramaiorra ere Elgetan izango da abeslariak musikaz laguntzeko. "Abesbatza hasita gaude kantu batzuk entseatzeko, baina *Elgeta kantuan* ez da abesbatza-entseatzeko antolatutako ekimena. Irekia da eta parte-hartzailea izatea gura dugu", adierazi du Lorea Larrañagak. "Letrak banatuko ditugu jendartearen, eta animatzen direnek heldu zein haur-izango dute kantuan egiteko aukera".

Entseguak martitzenetan

Bada, lehenengo aldiz antolatzen dela kontuan hartuta, kantuak

ikasteko entsegu irekiak antolatu dituzte. Ez dira derrigorrezkoak, eta animatzen direnek kantu sorta polita lantzeko aukera izango dute. Martitzenean egin zuten lehenengo entseguak eta hilaren 16an eta 23an egingo dituzte hurrengoak. Hitzordua kultura etxean da, 21:00etan hasita. Kantuen errepertorioan daude *Xalbadorren heriotza*, *Itsas ontzi baten*, *Euskaldunak munduan*, *Erribera*, *Mendizaleak aurrera*, *Adios maitia*, *Guk euskaraz*, *Zenbat gera*, *Isil isilik dago*, *Bagare*, *Sali de Jamaika* eta *Egia da*, besteak beste.

Astelehenean arratsalde pasa polita erretiratuek

Elgetatik bazkalostean abiatu, eta Azepeitan egin zuten arratsalde pasa erretiratuek. Eguraldi ona izan zuten lagun, eta Loiolako basilika, Olatz ermita eta inguruetako beste hainbat txoko bisitatu zituzten. Bueltan, arratsaldeko zortziak aldera, afari-merienda egin zuten 34 lagunek Ozkarbi elkartean.



LZ

Elgetako hiru odol-emailek jasoko dute aurten intsignia

L.Z. | ELGETA

Gipuzkoako odol-emaileen elkar-tek urriaren 28an, domeka, egingo du Debagoiena eta Debarrena bailaretako ordezkariendako intsignia eta diploma banaketa. Azken urteotan moduan, Elgetako Espaloia kafe antzokian egingo dute ekitaldia, eta aurten herriko hiru lagunek jasoko dute elkar-teraren erre-konozimendua eta esker ona.

Manuel Sarasuak urrezko intsignia jasoko du, 50 odol-ateratze egitera iritsi da-eta. Zilarrezko intsignia bana jasoko dute, bestalde, Jabier Le-nizbarrutiak eta Iban Arantzabalek. Bi lagun horiek 25 odol-ateratze egin dituzte.

Meza eta bazkaria

Egitaraua aurreko urteetako bera izango da. 12:00etan Elgetako parrokiaren meza antzokian, eta intsignia eta diplomak banaketa ekitaldia 13:30ean egingo dute Espaloia kafe antzokian. Bazkaria ere bertan egingo dute, 14:30ean hasita.

Ekitaldia Antzuola, Bergara, Deba, Eibar, Elgoibar, Mendara, Mutriku, Oñati eta Sorraluzeko odol-emaileendako antolatu dute. Helburua da borondatez eta musu-truk egindako ekarpena errekonozitzea eta eskertzea. Bada, gonbidapenak lortzeko nork bere herriko ordezkari-tzara jo behar du.

IX. PILOTA TXAPELKETA

Martxan da 2012ko pilota txapelketa

Domekan, urriak 7, jokatu ziren 40 urtetik beherakoen lehenengo lau norgehiagokak. 40 urtetik gorakoek urriaren 19an hasiko dute txapelketa. Aurten, 17 bikotek eman dute izena txapelketa parte hartzeko; guztira, 34 lagunek.

TXAPELKETAKO BIKOTEAK

40 URTETIK GORAKOA

Iñaki Ugarteburu – Jose Mari Zubiaurre
Luisan Alkorta – Gorka Bolinaga
Asier Morales – Fernando Zenitagoia
Jabier Bolinaga – Iñaki Izagirre
Igor Irazabal – Enrike Elkoro
Angel Ibarluzea – Alberto Telleria
Iker Irazabal – Jabier Larrañaga
Pello Larrea – Mikel Elkoro

40 URTETIK BEHERAKOAK

Sergio Bouzas – Jon Irazabal
Mikel Ormaetxea – Haritz Makarro
Odei Zenitagoia – Andoni Elortza
Oxel Erostarbe – Gorka Arizmendiarieta
Oskar Askasibar – Haritz Gallastegi
Iban Retolaza – Diego Cantabrana
Iraitz Bolinaga – Koldo Erostarbe
Ibon Untzetabarrenetxea – Mikel Beretxinaga
Oskar Sarasua – Iñaki Olaortua

AURREKO ASTE BUKAERAKO EMAITZAK

O. Erostarbe-G. Arizmendiarieta / I. Olaortua-O. Sarasua	11-22
O. Zenitagoia-A. Elortza / I. Untzetabarrenetxea-M. Beretxinaga	22-14
M. Ormaetxea-H. Makarro / I. Retolaza-D. Cantabrana	10-22
S. Bouzas-J. Irazabal / O. Askasibar-H. Gallastegi	18-22

Astelehenean Elgetan izango da KZguneko dinamizatzailea

Hamabostean behin etortzen da Elgetara KZguneko dinamizatzailea. Astelehenean, urriaren 15ean, kultura etxeko hirugarren solairuan dagoen ordenagailu gelan izango da, 16:00etatik 20:00etara. Erabiltzaileek aukera izango dute zalantzak argitzeko eta eskaintzan dauden ikastaroak doan egiteko.

EAJ-k hauteskunde kanpainako bi ekitaldia iragarri ditu

Zapatuan, hilak 13, Markel Olano eta Maria Eugenia Arribabalaga Elgetan izango dira. Saioa 12:30ean hasiko da. Hilaren 16an, berriz, hondakinen inguruko hitzaldia egingo du Karlos Ormazabal ingurumen diputatu ohiak, 19:00etan. Bi ekitaldia Espaloia kafe antzokian egingo dituzte.

2013ko aurrekontua prestatzeko batzar irekia herritarrekin

Urriaren 17rako deitu du Udalak 2013ko aurrekontuak prestatu aurretik herritarrekin egin gura duen batzar irekia. Herritarren proposamenak jasotzeko eta lehentasunak finkatzeko egin gura dute batzarra. Osoko bilkuren arretan egingo dute, 19:00etan hasita.

'Gartxot' pelikula urriaren 17an, 21:00etan, Espaloian

Nafarroako konkista eta akulturizazio prozesuak nola eta zeinen eskutik gauzatu ziren erakusten digu *Gartxot, konkista aitzineko konkista* filmak. Hilaren 17an, eguaztena, 21:00etan emango dute Espaloian. Sarrera 2,5 euro da. Batzen den dirua ekoizleei laguntzeko bideratuko da.

1967ko kintoek bazkaria egingo dute hilaren 20an, zapatuan

Elgetako 1967ko kintoek urriaren 20an, zapatua, egingo dute urteroko ospakizuna. Bazkaria egingo dute Espaloia kafe antzokian. Elgetan jaiotako edo Elgetan bizi diren 1967ko kintoak bazkarian parte hartzera deituak daude. Interesatuek Iraman eman behar dute izena.

Aperriboy, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

LEINTZ GATZAGA

Hasi dira basoak ehiztariz betetzen, oraindik uso gutxi pasatu bada ere

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Joan den egubakoitzean hasi zituzten Gatzagako ehiza postuen zozketak Arrasateko Eroski hipermerkatuko tabernan, eta dagoneko hasi dira ehiztariak agertzen baso inguruetan. Eguraldi ona izan da orain arte, baina hegaztiak ekarriko dituen haizea falta, eta uso gutxi pasatu da.

Herritarrek 18 ehiza postu dituzte, eta Gipuzkoako federazioak 60tik gora. Hain zuzen postu horiek dira zozketatzen dituztenak Eroskin, egunero astelehenean egubakoitzera bitartean. Egunotarako ez dute eguraldi onik iragarri, eta ehiztari gehien itxaropena da datorren astean ailegatzea uso taldeak.

Ehizaren gaineko plana

Ehizaren gaineko plan teknikoa egin du oraintsu Udalak, Jaur-laritzaren 2011ko ehiza legeak eskatuta. Aurten ez du eraginik izango plan horrek, baina datorren urtean aldaketak ekar ditzake postu kopuruan. Izan ere, postuen gehiengo kudeatzen duen Gipuzkoako ehiza federazioari kontratua bukatuko zaio.

Planaren barruan, gainera, ehiza larria egiteko aukera sartu dute, hau da, basurdeak eta oreinak ehizatzea.

Erretiratuen irteerarako izen-emate epea bukatzean dago

Nafarroa erdialdera, Lizarra eta Aiegi ingurura joango dira Toki Eder elkarteko erretiratuek hilaren 18an, eguena. Izena emateko epea bihar bukatuko da eta interesatuek elkarteko batzordekideengana jo behar dute. Iratzen izango da bazkaria, eta inguruko parajeak bisitatuko dituzte.

PILOTA

Aitor Mendizabal | Aspeko pilotaria

"Oso zaila da zortzi aukeratuen artean egotea, aprobeitzatzeko aukera da hau"

- Domekan egingo du Mendizalalek lau t'erdiko txapelketan debuta
- Arretxe II.a izango du aurrean, Eibarko Astelena pilotalekuan

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Aitor Mendizabalek (Antzuola, 1989) domekan izango du, profesional mailan debuta egin zuenetik, onenekin lehiatzeko aukera. Pilotalekuetako fokuek argi berezia ematen dute buruz burukoan, eskuz binakakoan eta lau t'erdikoan, horiek dira hiru torneo handiak, eta horietako batean debuta egingo du antzuolarrak. Txapelketarako bereziki prestatu da, baina domekan kontrario gogorra izango du aurrean, Arretxe II.a.

Zer moduz zaude domekako partiduari begira?

Ondo, partiduaren eguna iristeko deseaten. Denbora dezente daramat txapelketa bereziki prestatzen, azken asteotan entrenamendu saio onak egin ditut, eta partiduetan ere nahiko txukun ibili naiz. Azken boladan eskuek errespetatu egin naute, ez dut arazorik izan, ezta lesiorik ere, eta hori oso garrantzitsua da kirolariondako.

Iaz bigarren mailako lau t'erdikoa irabazita lortu zenuen aurtengo txapelketarako txartela. Aprobeitzatzeko aukerak dira horiek.

Duda barik. Txapelketa horietan ez dago denondako lekurik, enpresa bakoitzak zortzi pilotari aukeratzen ditu, eta zortzi aukeratuen artean egotea oso-oso zaila da, kompetentzia handia dagoelako pilotarion artean. Lehenengoan kanpora joanez gero inor ez da zutaz akordatzen, baina partidu pare bat irabazi eta nork bere burua erakustea garrantzitsua izango litzateke.



Aitor Mendizabal, iaz, Lau t'erdikoa irabazi ostean. | GOIENA

"Arretxe gogorra da, hari irabazteko norberak jokatu behar du ondo"

Ze helbururekin hasiko duzu txapelketa hau?

Partiduz partidu joan nahi dut, lehenengo Arretxeren kontra daukat eta badakit oso kontrario gogorra dela. Asko jokatzeko du, baina partidu irabazteko aukerak baditudala uste dut. Lehenengo, domekako irabazi behar dut, eta ondorengo etorririko da.

Ez dakit zuk nahiko zenukeen kontrarioa den.

"Ea domekan, orain arte moduan, jende asko etortzen den animatzera"

Bueno, lehenengo zozketan kontrario posible asko zeuden: Gonzalez, Asier Olaizola... Guztiek jokatzeko dute mordera, hortaz... **Zelako pilotaria da Arretxe II.a?**

Gogorra. Teknikoki oso pilotari ona da. Pilotari ez dio beste batzuek ematen dioten abiadurarik ematen, eta kontrarioari jokatzeko uzten dion horietakoa da. Hori bai, hari tantoa egitea oso zaila da, partidu irabazteko

norberak jokatu behar du ondo, ez duelako oparirik egiten. Eraman, eta eramanez, eta eramanez... Hark berea jokatzeko du beti.

Astelena izango da partidu.

Urtean zehar partidu mordera jokatu ditut han, eta dagoeneko ohituta nago pilotaleku horretan jokatzera. Egia da, aukeran, nahia go nukeela pilotaleku biziagoa, Gasteizko Ogeta edo Logroñokoa, esaterako. Baina, bestela ere oso pilotaleku polita da.

Gauza bat du ona, etxetik oso gertu dagoela eta Antzuolako zale asko gerturatuko dela.

Bai, seguru. Orain arte jende asko etorri da partiduak ikustera, animatzera, eta espero dut domekan ere hala izatea.

Txapela janzteko faboritoak?

Asko daude. Gainera, aurtengo final-laurdenetan ligaxka jokatzeko dute eta horrek esan nahi du erregularrak direnek egingo dutela aurrera. Hor ibiliko dira betikoak, Xala, Irujo, Olaizola... Eta Bengoetxea ere izan daiteke.

Eta nor dago sorpresa emateko moduan?

Hasieran esatea zaila da, baina badira indartsu dauden pilotariak. Doatek, esaterako, bi partidu on jokatu ditu asteburuan, eta konstante hartzekoa izango da.

Urte pasatxo daramatzazu profesional moduan. Zer moduz?

Oso ondo. Hasi eta berehala irabazi nuen bigarren mailako Lau t'erdikoa, eta sorpresa izan zen, nik ere ez nuen halakorik espero. Eta urtebete pasa ondoren aukera polit hau daukat, eta ea aprobeitzatzeko dugun.

ZIKLO-KROSA

Denboraldi berriko ziklistak aurkeztuko ditu Oñatiko taldeak

Ziklo-kros denboraldia hastear dago, eta aurtengo denboraldian ere Oñatik ordezkari izango du, Oñatiko Arrikruz Kobak taldeak 2012/2013 denboraldiko ziklistak aurkeztuko ditu eta zapatuan. Aurkeztuena Arrikruz koban bertan izango da, harrera-gunean, 11:00etan. Oñatiko zappi ziklista izango dira denboraldi berriari begira.

SASKIBALOA

MUK dobletea egingo du asteburuan, Maritxu ondo ospatu ostean

Joan den asteburuko atsedenaldiaren ostean, Josu Larrea-tegiren mutilek gogotik egingo dute asteburuan lan, zapatuan eta domekan partidu izango dute eta. Zapatuan 18:00etan Seky.es taldearen kontra jokatzeko dute Iturripen eta domekan Gasteizera joango dira, Fundacion 5+11 taldearen kontra atzeratutako lehia jokatzera.

ESKUBALOA

Egubakoitzean jokatzeko dute Ford Mugarrik eta Soralue BKE taldeek

Joan den astean aldeko emaitzak izan zituzten Euskadiko Txapelketan lehian dabiltzan ibarreko bi ordezkariak. Asteburuan etxean jokatzeko dute bi taldeek, eta gainera, partiduak egubakoitzean aurreratu dituzte. Ford Mugarrik 12:00etan jokatzeko du Escolapiosen kontra, eta Usurbilen bisita izango dute Bergarakoek, 12:30ean.

MENDIA

Leongo San Isidroko mendietara irteera egingo du Pol-Polek

Bergarako Pol-Pol eta Gorla Alpino taldeek irteera antolatuko dute astebururako, Leongo San Isidroko mendietara. Bihar, egubakoitzean, goizean goiz irtengo dira (05:00), eta Bergarako mendi elkartetik adierazi dutenez, irteera horrek ez du aparteko zailtasunik. Bidaiarako txartelak Pol-Poleko bulegoetan dituzte salgai.

MENDIA

Bi proiektio egingo dituzte Besaideren hamabostaldi barruan

Aurrenekoa urriaren 17an izango da, datorren eguaztorean (19:00etan, Kulturaten). Aloña Mendiko espeleologia taldearen eskutik *Uraren bidea* izeneko lana erakutsiko dute. Urriaren 24an, berriz, Adolfo Madinabeitiak Acopan Tepuyin oinarritutako *Mundo perdido* lana egongo da ikusgai. Proiektio hori ere Kulturaten egingo dute, 19:00etan.

FUTBOLA

Mondra eta Aloña Mendi taldeak laugarren jardunaldian hasi dira hegan

Azkargortaren eta Iturrinoren mutilek etxetik kanpora irabazi zituzten ligako lehenengo partiduak

X.U. | ARRASATE

Lehenengo garaipena bat-batean etorri daiteke -Arretxabalearen edo Bergararen kasua- edota aurreikusi baino zailtasun handiagoak egon daitezke, dinamika negatiboan sartu eta obsesio bilakatu arte. Andoni Azkargortak badaki zer den hasieran gorriak pasatzea eta aste gutxiren buruan goera erabat zuzentzea. Lutxo

Iturrino, berriz, seguru deseaten zegoela Mondrako entrenatzaile moduan lehenengo garaipena lortzeko. Eta bi taldeek etxetik kanpora lortu dute helburua, Beti Gazteren (1-2) eta Trintxerperen (0-1) zelaietan.

Asteburuan, berriz, Aloña Mendik Azkoagainen errepikatu nahi du irabazteraren sentsazioa,



Aloña Mendi taldeak, iaz, Hondarribikoaren kontrako partiduan. | GOIENA

laugarren dagoen Ordiziaren bisitaren aurrean. Mondrak, berriz, bigarren hitzordua izango du jarraian kanpoan, oraingoan Zarautzen. Bergarak Trintxerpe hartuko du Azkoagainen; hala,

Mondraren kontra etxean galdu ostean, Pasai Antxokoak amorratuta etorririko dira. Eta Arretxabaleak, azkenik, lider dagoen Hernanirenen zelaira egingo du bisita.

MENDIKO BIZIKLETA

Iban Altuberen omenezko MTB martxa domekan

Arrasatekoa urriaren 20an izango da, eta urriaren 21ean egingo dute Eskoriatzakoa

X.U. | ARRASATE

Iban Altuberen omenezko bigarren martxa egingo dute domekan. 09:00etan hasiko da Altube omenezko ekitalditzakoa, eta segidan hasiko dute martxa (federatuek, 10 euro; federatu ez direnek, 15).

Urtero moduan, antolatzaileek ahalegina egin dute Oñatiko inguruetako paraje ederretan ibilbidea egiteko. Eta denon gustua asetzeko ahalegina egin dute. Hala, ibilbide luzeak 36 kilometro izango ditu, eta azken kilometroetarako indarrak gordetzea komeniko da, 26. kilometroan hasita 2 kilometroko igoera gogorra izango delako, *Infernua* izeneko. Baina esfortzuak mereziko du, ondoren etorriko den kilometro eta erdiko jaitsiera ikusgarria delako. Eta honela izendatu dute, gainera: *Heriotzaren trialera* izendatu dute. Hala, bizikleta gainean jaisten abileziarik ez duenak hobe du patxadaz hartu.

Tarte horiek izango dira gogorrenak –martxa gehienetan izaten da tarte teknikoren bat–, baina ibilbidea osorik egiteko

arazorik ez da egongo, fisikoki gutxienez baldintzak izanez gero. Hala ere, 30 kilometroko ibilbide lasaiagoa ere aurreikusitako antolatzaileek.

Arrasaten eta Eskoriatzan

Oñatiko martxaren ostean, txirrindulariek 15 egun izango dituzte atsedean hartzeko, urriaren 20ko eta 21eko asteburua *potente* datorrelako. Zapatuan Arrasateko martxa egingo dute, Besaidekoek antolatuta, eta hurrengo egunean Eskoriatzakoek hartuko dute erreleboa.



Oñatiko martxako irteera. | GOIENA



2010eko edizioan, lasterkariak Portaloian irteteko gertu; tartean, iazko irabazle Yera Varela. | X.U.

ATLETISMOA

Arrasate-Oñati proba, 'denboraldia' hasteko

- ▶ Sasoi honetako lehen lasterketa izango da zapatukoa
- ▶ Egubakoitzean 22:00ak arte eman ahal da izena

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Oraindik garaiz zaudete zapatuan (17:00) korrituko duten Arrasate-Oñati lasterketan esku hartzeko. Oñatiko Antxintxiketan atletismo taldeko lagunak dabilta antolatzaile lanetan, eta, proba hasi baino lehen izen-emateekin egoten diren arazoak saihesteko, aurrez eman behar da izena, Internetez. Hala, bihar, egubakoitzea, 22:00etan itxiko dute www.kirolprobak.com webgunean izena emateko bidea.

Lasterketan parte hartzeko korrikalariak 15 euro ordaindu beharko dituzte (alokairuzko txipa barne) eta txip propioa dutenek, ostera, 13 euro. Horrekin batera, lasterketa egunean erosago ibiltzeko, Oñatitiko Arrasatera autobusa jarriko dute antolatzaileek, eta zerbitzu hori apro-

FITXA

ARRASATE-OÑATI LASTERKETA

Irteera: Portaloian.

Ordua: 17:00.

Distantzia: 11,9 kilometro.

Denbora: Iaz, Yera Varelak 38 min.

betxatu nahi duenak 2 euro gehiago ordaindu beharko ditu. Hala, azken orduan ibilita ere, oraindik garaiz zaudete aurtengo Arrasate-Oñatirako.

Eratuberrituta

Iazko lasterketak parte-hartze handia izan zuen. Jakinekoa da sasoi honetan asko direla korrika egiten ibiltzen diren herritarrik, besteak beste, Behobia-Donostia prestatzeko. Eta, Arrasate

-Oñati edo Antxintxika krosa moduko hitzorduak aprobetxatzen dituzte ondo entrenatzeko. Hala, iaz 381 lagun batu ziren Arrasateko Portaloian, lasterketan esku hartzeko gertu. Beste nobedadeetako bat izan zen patinatzaileek ere lehenengoz hartu zutela esku, eta Euskal Herri osotik etorritako 98 lagun batu ziren; hala, zapatuan haiek apur bat lehenago irtengo dira.

Iaz, Varela eta Arregi onenak

Urtetan Arrasate-Oñati probak irabazle *kanpotarrak* izan ditu, Debagoieneko mugetatik haratagokoak. Iaz, berriz, etxean geratu ziren sariak, gizezkoetan Yera Varela (38.09) oñatiarra izan zelako onena eta emakumezkoetan, Nere Arregi arrasatearra (46.50).

Ondoren datoz Tafyd gaueko krosa eta Antxintxika krosa

Zapatuko lasterketaren ostean etorriko dira atletismoan bailarako beste bi hitzordu, gaueko Tafyd krosa (urriak 19) eta Antxintxika krosa (azaroak 3). Gaueko Tafyd krosa, azken 3 urteotan moduan, Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako TAFYD kirol jardueren zikloak antolatuko du. Egunean bertan eman ahal izango da izena, edo lehenago www.herrikrossa.com atarian (8 euro) edo Ferixalekuko idazkaritzan. Azaroaren 3an, berriz, Antxintxika krosak hartuko du lekukoa, Soraluze eta Bergara arteko lasterketarekin. Izen-ematea, kirolprobak.com atarian.



Iazko irabazle Sergio Gartzia. | TAFYD

VIII. Antxintxika TRIATLOI TALDEA

LASTERKETA

Olatz Rementeria Memoriala 2012 (PLAENTXI - BERGARA)

3 azaroak 10km. distantzia

SARI NAGUSIA

www.kirolprobak.com

IZEN EMATEAK: www.kirolprobak.com

* lasterketa egunean ezingo da izena eman.

SORALUCE, kutxa, Gipuzkoa, goiena, GAES, IBERDI, NAFER, Etxebarria, TXORRUKA, ARMENDIA, GARRIBAY, METAGRA, SORALUCE, kutxa, Gipuzkoa, goiena, GAES, IBERDI, NAFER, Etxebarria, TXORRUKA, ARMENDIA, GARRIBAY, METAGRA

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfonsito X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behea

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL

Oñati / Kale zaharra, 1 / 943 78 01 22

amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Apendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino kalea 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Uarkape kalea 14, behea / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

KULTURA

Azpiazuren ondarea Oñatin

Balio handiko ikerkuntza eta metodologia lan originalak agustindarren artxiboan daude

MAIDER ARREGI | OÑATI

Jose de Azpiazuren ia lan eta ondare guztia Suitzatik Oñatira ekarri dute. Agustindarretako artxiboan txukun bilduta dagoela erakutsi digute Xabier Ugartek eta Lupe Azpiazuk, musikari eta sortzaile handiaren alabak. "600 kilo baino gehiago daude artxiboan, milaka partitura dago", azaldu digu Azpiazuren lana oso gertutik ezagutzen duen Xabier Ugarte musikariak.


"Argitaletxeetan kaleratutakoa eta argitaratu ez dena, guztiak originalak, ekarri ditugu Oñatira. Haren liburutegia ere ekarri dugu; Europan zehar erositako liburuak dira", azaldu digu Lupek. Azpiazuk liburu horietatik transkripzioak egiten zituen. Orain, liburu horiek Agustindarretan daude eskuz idatzitako beste transkripzio askorekin batera. "Genevan, Beltz izeneko edizioa sortu genuen, eta bertan 1.500 partituratik gora jasotzen dira". Arlo pedagogikoan sekulako lana egin zuen; baita ikerkuntzan ere. "Barrokoko eta Pizkundeko musikaren bila ibili zen: tablaturan -eskritura zaharrea- idatziak; ondoren transkribatu egiten zituenak", dio Lupek.

Gitarra irauli zuen

Irakasteko modua eta gitarra bera irauli zituen. "Musika eta instrumentua ikasteko prozesua atsegina izan zedin lan asko egin zuen. Material asko argitaratu zuen horretarako. Hark zioen umeek ezin zutela 9 edo 10 urte bete baino lehenago gitarra ikasten hasi. Izan ere, adin tarte horretarako ez zegoela materialik zioen gure aitak. Gainera, gitarrak fisikoki asko exijitzen du; ondo eutsi behar zaio eta eskuan gogor eduki, behar den soinua ateratzeko. Fisikoki piano bat baino exijenteagoa da", dio. "Lehen etapan, ikaste prozesua izan nuen aitarekin. Erabili



Lupe Azpiazu, aitarekin emandako zuzeneko kontzertuetako batean. | LUPE AZPIAZU



Nuages obraren transkripzioa. | M.A.

zuen metodoarekin, beti motibata nengoen. Partitura eta musika gehiagoren bila ibiltzen nintzen. Ni nintzen bila nabilena eta 15 urterekin zuzenekoak ematen hasi ginen Suitza, Italia, Frantzia barrena. Diskoak ere atera genituen. "Aitak makina bat zuzeneko eman du hemen. Aipatzekoa da Donostian eman zuen Bokeriniren kontzertua. Gainera, obra originala topatu eta lehen aldiz mundu mailan Bokeriniren pieza jo zuen. Obra hau azken aldiz Bokerin bizi zela jo zen. Berdin gertatu zen 1953. urtean Vivaldiren piezarekin. Egun pieza oso ezagunak dira, baina lehen ez zituen inork ere ezagutzen", gogoratu digu Lupek.

Gitarra katedra

Segovia maisuaren eskutik Espainiako Estatutik kanpoko lehenengo gitarra katedra sortu zuen, Genevan. "Katedra sortzeko lana eman ziotenean batu ginen ama, aita eta hirurok. Santa Zezilia eguna zen; ondo atera beharra zuen. Ilusio handia egingo lioke orain bere altxor eta ondare guztia Oñatin batuta dagoela ikusteak", gaineratu digu Lupek, hunkituta.

Zigilua egin diote filatelia taldekoek

Jose de Azpiazu jaio zela 100 urte bete direla-eta, Oñatiko filatelia taldeak -CECA- errekonozimendu eta opari polita egin dio musikari eta sortzaile handiari. Hala, Jose de Azpiazuren irudia daraman zigilua kaleratu berri dute; joan den barikuan aurkeztu zuten.

Oñatiko Turismo Bulegoan eta Filatelia taldearen bitartez lor daiteke zigilua.



Jose de Azpiazuren zigilua. | CECA

ESANAK

"Musika eta instrumentua ikasteko prozesua atsegina izan zedin lan egin zuen aitak"

LUPE DE AZPIAZU | MUSIKARIA

DEBAGOIENA EZAGUTZEN

Zein herritan dago Debagoieneko Mankomunitatearen egoitza? Argazkia eta galdera > Joxefe Diaz de Tuesta



SMS bidez:
Bidali KLUBA ERANTZUNA
[bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



JAKION

Jakionek emandako
Produktu sorta*

*Jakioneko produktuz osatutako oferta.

Parte hartzeko

Telefonoz:
943 25 05 05
E-postaz:
kluba@goiena.com
WhatsApp bidez:
688 69 00 08
Parte-hartzaile
guztien artean
zozketatuko da.

DVD

Adi astelehenean!
DVD-aren irabazlea
eta sari berriak
argitaratuko ditugu

'Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa'



goienakluba™

Abantailaz betetako kluba!



goienakluba™ 2012

Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

Guillem Albaren *Trau* ikuskizuna. | GUILLEM ALBA

'Trau' lanak Txotxongilo Mostra irekiko du eguenean

'Sketchofrenia' eta 'Flirt' antzezlanekin lortutako arrakastaren ostean, 'Trau' izeneko ikuskizun berriarekin dator Guillem Alba Bergarako mostrara

LAIDA BERISTAIN | BERGARA

Taun Taun Teatroak Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen XI. Mostra aurkeztu du. Bi urtean behin egiten da, eta duela 22 urte egin zen lehenengon aldiz. Harrezkero, Euskal Herriko eta Estatu-

ko antzerki panoraman huts interesgarri bat bete nahi izan dutela azaldu dute antolatzaileek. Izan ere, Bergarako ikusleria heldu batentzat pentsatutako txotxongiloen Estatuko lehenengo mostra da.

Hala, ikuskizun ezberdinekin espazio ezberdinetan gozatzeko aukera egongo da. Hurrengo edizioetan, mostra zabaltzea da asmoa, eta tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak eta mota horretako ekimenak antolatzea.

Trau izeneko Guillem Albaren umorezko ikuskizuna izango da mostrari hasiera emango diona. Umoreaz gain, umorearen eta poesiaren arteko bidaia erakusten du, zentzugabekeria eta txotxongiloak fusionatuta.

Obra horretan izugarriko garrantzia eman nahi izan dio eszenaratzeari. Horregatik, txotxongiloak eta bestelako objektuak agertzen dira eszena barruan. Bestalde, erregistroa guztiz aldatzen du Albak, bere pailazo garakidearen talentua alde batera utzita.

Hala eta guztiz ere, *Trau* ikuskizunean Alba ez da bakarrik egon. Besteak beste, Alfred Casas, Anna Roig, Paz Alba eta gurasoen laguntza izan du.

Lehenengo aldiz Fira Tarregaren aurreko edizioan egon zen ikusgai eta oraingo honetan Bergaran izango da urriaren 18an, arratsaldeko zortzietan, Zabalotegi aretoan. Beste hainbat jaialdi eta aretotan ere egon da ikusgai ikuskizuna. Besteak beste, Almeriako antzerki jaialdian eta Bullangas Pailazoaren Nazioarteko jaialdian.

Sinopsia

Ikuskizunak gizakia ez den pertsonaia baten mundu irreal batera eramaten du ikuslea.

Gizakia ez den arren, giza ekintzak egiten ditu. Ez dauka ilerik eta oso motel ibiltzen da oinez. Pertsonaiak bere mundu propioa sortu nahi du bere inguruan aurkitzen dituen gauza desberdinak gordeta.

HELDUENTZAKO NAZIOARTEKO TXOTXONGILO MOSTRA

URRIAREN 18AN

20:00 *TRAU*. Guillem Alba (Katalunia). Zabalotegin.

URRIAREN 19AN

18:30 *SIE7E*. Ymedio Teatro (Andaluzia). Kaleam.

19:00 *SOTA MINIMS*. Merce Gost (Katalunia). Pikupen.

10:30 *TITIRESKA*. El Tenderete (Euskal Herria). Gaztetxean.

20:00 *CRIATURAS ARTIFICIALES*. Roberto White (Argentina). Zabalotegin.

URRIAREN 20AN

12:00 *SIE7E*. Ymedio Teatro. Kalean.

19:00 *IMPÁS*. Iñaki Mata (Euskal Herria). Kalean.

19:00 *SOTA MINIMS*. Merce Gost. Pikupen.

20:00 *DIAGNOSTICO HAMLET*. Pelmanec (Katalunia). Zabalotegin.

URRIAREN 21EAN

13:00 *ZOOZOOM*. Markeliñe (Euskal Herria). Kalean.

19:00 *SOTA MINIMS*. Merce Gost. Pikupen.

18:00 *PROMETEU*. La Fontana (Portugal). Zabalotegin.

En la Lona taldearen 'Sialuk hartz txikiaren bidaia'

L. B. | BERGARA

En la Lona antzerki taldea 1997an sortu zuten Paula Alfierik eta Andres Fesnok, Buenos Airesen, Argentinan. 2000. urtea ezkerro, ordea, Euskal Herrian bizi dira.

Talde horren ikuskizunetan, zirku-teknikak, antzerkia, txotxongiloak, pailazoak eta maskarak konbinatzen dira. Teknika horiek sartzen joan dira euren ikuskizunetan. Horretaz gain, 1995. urtea ezkerro, zirku-teknikak ere irakasten dituzte. Hasieran Argentinan ibili ziren klaseak ematen, baina gaur egun penintsulan dihardute zirku-teknikak irakasten.

Urriaren 13an Bergaran, Zabalotegi aretoan, En la Lona taldearen *Sialuk hartz txikiaren bidaia* antzerkia egongo da ikusgai arratsaldeko seietan. Sarrera 4 euro ordaindu beharko da.

Creacion Cloctivark-ek sortutako antzerkia da, Pablo Ibarluzearen zuzendaritzapean. Antzezleak, berriz, Nerea Ariznabarreta, Anduriña eta Paula Alfieri dira.

Emakumezkoak protagonista Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloan

PERU ARREGI | BERGARA

Organo Erromantikoaren Nazioarteko zikloak indartsu eta arrakastaz eman dio hasiera Bergaran. Bigarren emanaldia zapatuan, hilaren 13an izango da, 20:00etan Santa Marina parrokiari.

Hiru emakumezko zapatuko emanaldiaren protagonista nagusiak: Ana Belen Gartzia organista, Ana Salaberria sopranoa eta Ainhoa Zubillaga mezzoa.

Ana Salaberria

Donostiako Orfeoiko soprano solista gisa dabil egun Ana Salaberria. Goi mailako ikasketak egin zituen Donostiako Kontserbatorioan. Izen handiko irakasleekin egin ditu ikastaroak;

besteak beste, hauek izan ditu irakasle: Eurne Aguerri, Felix Lavilla, Enriqueta Tarres eta Ileana Cotrubas. Gaur egun, errepertorioa lantzen ari da Tony Madiganekin.

Eitaraua

Milango Mario Duella organistaren txanda izango da hilaren 20an. Aritzeta eta Etxarri abesbatzak aldiz, Aitor Olea organo-jotzailearen laguntzarekin urriaren 27an izango dira Santa Marinar. Egun berean, baina goizeko hamaiketan Bergarako eta Azpeitiko J Barrenetxea musika eskolako organo ikasleen zuzenekoaz gozatzeko aukera egongo da Santa Marina parrokiari.



Ana Belen Gartzia organistak gidatuko du emanaldia. | JOSETXO ARANTZABAL



Antonio Bernal eta Iker Azkoitia. | GOIENA

Iker Azkoitia aretxabaletarra Madrilgo Microteatroan

P. A. | ARETXABALETA

Microteatro, Madril duela bi urte ireki zuten antzerki-gunea da, eta jada oihartzuba duen ekimenean bilakatu da. Bertan, eta 4 euroren truke, nahi duenak 15 minutu inguruko ekitaldiak ikusteko aukera izaten du. Hilabete honetan, *Microdebit* izeneko atal bat antolatuta dute. Ekimen horrek jende gaztea ezagutzera ematea du helburu, eta haietako bat da Iker Azkoitia aretxabaletarra.

Una pequeña... confesion edo *Aitorpen txiki bat* zentzugabeko komedia da zuzendari aretxabaletarraren lana. Antonio Bernal eta Marta Arrabal akto-

reekin batera, gaur hasi eta azaroaren bukaera arte, martitzenetan izango dira bertan, 20:30etik 22:20ra bitartean. Antzerkia sauna misto batean oinarrituko da.

Etorkizunari begira

"Internet komunikabide zuzen, merke eta pertsonala da", dio Azkoitia, horretan pentsatutako formatua da. Sare sozialetarako prest daukate euren obra ezagutarazteko traola: *#MicropenePorDinero*. "Talentu berriok aukera asko lor ditzakegu, ekoizpen, distribuzio eta kontsumo era berriei gogor eusten badiegu".



Bergarako hainbat artista Iruñean uztailean egin zuten azken SketchCrawl-ean ateratako talde argazkian. | ANA GARCIA

'SketchCrawl'-a Bergaran: kalera irten eta marraztu

- ▶ Zapatuan da hitzordua, munduko hainbat tokitan bezalaxe
- ▶ Ikusten dena marraztu eta lanak sarera igotzea da filosofia



Sanferminetako jantziekin. | EDURNE IRIARTE



Iruñeko eraikin bat. | MARIA PAZ ALLUSTIZA

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Kalera irten eta aurrean ikusten dena marraztea da *SketchCrawl* izenez ezagutzen den topaketa, eta horretarako deia dago eginda Bergaran, zapatarako, hilak 13.

Ez da marrazkilaria profesionala izan behar, nahikoa da marraztea gustukoa izatea. Kalera irten, aurrean dagoena marraztu eta egindako marrazki horiek gero sarean zintzilikatu eta mundu osoarekin partekatzea da deialdi horren filosofia.

Nazioarteko deialdia

Internet bidez egiten da *SketchCrawl*-erako hitzordua. Bi edo hiru hilean behin egiten dute, eta munduko toki ezberdinetan batera izaten da. 37. hitzordua, esaterako, hilaren 13an da, zapatuan, eta Euskal Herriko topalekua Bergara izango da. Bergarara etorriko dira deialdi horrekin bat egin gura duten euskal marrazkizaleak. Eta Bergaran bezalaxe, munduko bazter askotan ere kalera aterako dira herritarrak marraztera; adibidez, Munichen, Valentzian, Tokion, Perun, San Frantziskon eta Estokolmon. Bazter guztietako parte-hartzaileek sarera igoko dituzte gero marrazkiak, eta, egun horretan, munduko toki horietako itxura, aurpegiak eta paisaiak ikusi ahal izango dira.

Beartekin batera

Enrico Casarosa italiarrak izan zuen ideia 2006an, eta harrezkeron bizpahiru hilean behin egiten da *SketchCrawl*-a. Euskal Herriko lehena Donostian egin zen, 2011n. Azkena, 36.a, Iruñean egin zuten, uztailearen 14an.

Beartek bat egin du zapatutako deituta dagoen nazioarteko hitzordu horrekin eta prest du egitaraua. Etorriko diren marrazgile guztiei herriko kaleak eta txokoak ez ezik, parke eta lorategiak bisitatzeko gonbidapen berezia egiten die, udazken kolorez jantzita daudelako. 10:30erako dute hitzordua eginda udaletxeko arkupeetan, eta eguerdian, bazkaria. Arratsaldean, berriz, alde zaharreko lokaletan jarritako lanen bisita gidatua egingo dute.

Adimen ezgaitasuna dutenak hobeto ezagutzeko erakusketa

O.E. | BERGARA

Zu eta ni izeneko argazki erakusketa antolatu du Bergarako Uliazpi zentroak, hango Kultura Sailarekin batera, eta Bergarako osoko bilkuren aretoan dago ikusgai.

Adimen ezgaitasuna duten pertsonak ezagutzera emateko helburua du erakusketa horrek eta Uliazpi zentroan arreta jasozten duten lagunak ageri dira argazkietan, euren familiekin, gustuekin, zaletasunekin eta bizitzaz gozatzeko gogoarekin. "Zu eta ni bezalako pertsonak direla erakutsi gura dugu", diote erakusketa antolatzen ibili direnek.

Erakusketa horrek formatu handiko 18 argazki ditu eta Zubillaga Dk. zentroan arreta jasozten duen pertsona bakoitza erakusten dute. Argazkiekin batera, horietako bakoitzaren aurkezpen txiki bat ere ikus daiteke: nongoak diren, zer adin duten eta ze asmo eta zaletasun dituzten, esaterako.

Ordutegia

Erakusketa urriaren 21a arte dago zabalik, Bergarako osoko bilkuren aretoan, eta ordutegia da: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara; eta domeka eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Lazarragatarren genealogia jaso du Di Cesarek liburuan

Familiaren historia ere kontatzen du argentinarrek



Carlos Martinez de Irujo, Sotomayorko dukea. | OIHANE ISASI

O.E. | OÑATI

Lazarragatarren genealogia eta historia jasozten duen liburua argitaratu du Gervasio di Cesare idazle argentinarrek. Irailaren 12an aurkeztu zuten liburua, Gasteizko Ignacio Aldekoa kultura etxean. Hantxe izan ziren, besteak beste, Blanca Urgell Kultura sailburua, Mikel Biain Oñatiko alkatea, Carlos Martinez de Irujo Sotomayorko dukea, Pruden Gartzia Euskaltzaindiko Azkue liburutegiko zuzendaria eta Gidor Bilbao EHUKo euskarako errektoreordea.

Liburuak bi zati ditu: batean, lazarragatarren garrantzi soziala, ekonomikoa eta politikoa dator; eta bigarren zatian, familiaren genealogia. Hala nola Belgikako Fabiola erregina, Albako dukesa eta Sarkozyren emazte ohia agertzen dira zuhaitz horretan.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Baserria salgai Zabola auzoan. Hiru etxebizitza egiteko aukera eta 1.415,44 metro koadro lursaila. 629 513 922 edo 636 494 689

Aramaion etxea salgai. 105 metro koadrokoa: hori logela, egongela, sukaldia eta bikomun. Sukaldia eta komunak guztiz ekipatuta ditu. 18 metroko garaje itxia atari ondoan. Erabilgarriak diren 15 metroko ganbara. 669 70 39 77 edo 652 72 83 60 (Mariasun)

Arrasate. Etxebizitza salgai Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komuna. 170.000 euro. 606 86 71 97

Arrasate. Prezio berria! 174.000 euro. Etxebizitza salgai. Eraberitua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldean ematen du. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldia. Hiru igogailu eta gas naturala. 650 01 05 15

Bergara. 50 m²ko etxebizitza salgai. Logela, sukaldia, komuna eta egongela. Balkoiarekin. Oso argitsua. 75.000 euro. Bikoteendako aproposa. Errentan hartzeko aukera ere bai. 679 45 57 62

103. ERRENTAN EMAN

Bergara erdialdean. Guztiz berrituta dagoen pisua errentan ematen da Bergara erdialdean. 84 metro koadro ditu, bi logela handirekin. 685 72 51 58

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 662 56 95 37 edo 673 84 08 73

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta bi bainugelakoa. Igogailuarekin. Erosteko aukera ere bai. 675 71 50 36

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan, erdialdean. Bilogela, gasdun berokuntza, PVCzko leihoak, eguzkitsua. 72 metro koadro. 606 65 58 08 edo 660 04 25 25

Oñati. Etxebizitza errentan ematen da erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta igogailua ditu. Interesatuok arratsalde deitu zenbaki honetara: 652 77 87 15

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Pixu bila gabiltzan Aretxabaletako bikote gazte bat gara. Nahiago dugu txikia izatea. Eskerrikasko!. 656 71 31 09

Baserrian bizi nahiko genuke. Baserrian bizitzeko desiatzen gauden bikote bat gara. Ateak irekita ditugu edozein proposamenetarako: konpondu, zaindu... Auzoak bizirik mantendu behar ditugu, baserriak ezin dira hutsik egon!! 652 76 73 39

Bergara. Familia batentzat etxebizitza behar dugu errentan, prezio ekonomikoan. Marijose. 696 70 55 09

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan Erguin kalean, unibertsitatetik gertu. Bilogela, egongela, komuna eta sukaldia balkoiarekin. Prezioa: 250 euro. 660 31 37 28

Arrasate. Unibertsitate ondo-ondoan, logela bat ematen da errentan, bi neskekin etxea osatzeko. Kafefazio zentrala prezio barruan. Lorea. 620 52 94 98

Bergara. Logela ematen da errentan. 699 09 46 26

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 110 euro gehi gastuak. Lau logela, egongela, komuna eta sukaldia. Mendiko kalen. 615 00 67 60

Oñati. Logelak ematen dira errentan San Lorentzen. 943 78 31 42 edo 688 60 30 52

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Zerkaostetan, Iturbide egoitza parean, garajea salgai. 600 75 54 18

3. LOKALAK

305. BESTELAKOAK

Oñati. Kale Zaharrean bulegoa konpartituko nuke. Guztiz egokitu dago. Egokia izan daiteke bulego zein jendea atenditzeko. 651 70 17 41

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egiteko. Hasieran, astean 2 ordu. Interesatuok deitu 19:00etatik 21:00etara. 654 05 91 77

402. ESKAERA

Arrasate edo Bergara. Neska gertu lanerako. Nagusiak edo umeak zaitzen eta garbitasun lanetan. Erreferentziaduna. 636 47 64 92

Arrasaten, Eskoriatzan edo Aretxabaletan. Neska eskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatu eta hezkuntza berezian espezialista. 600 39 47 77

Bergara, Arrasate edo Aretxabaleta. Neska lan bila etxeko lanak egiten edo nagusiak zaitzen. Tabernatan sukaldari. Oso langilea. 697 20 00 86

Bergara, Arrasate eta Aretxabaleta. Neska boliviarra gertu nagusi eta umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Egunez, gauzez zein asteburuetan. Paperak eguneratuta dauzkat eta esperientziaduna naiz. 618 14 71 34

Bergara. 47 urteko pertsona lanerako gertu. 606 24 79 09

Bergara. Neska txakurrak paseatzeko eskaintzen da. 943 53 29 18

Debagoiena. Administrazioan lizentziatua gazte lanerako prest. Esperientzia daukat. Deitu 629 06 93 60 zenbakira.

Debagoiena. Astebukaerari lana egingo nuke, etxean edo tabernak garbitzen. Deitu 699 09 46 26 telefonora.

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaitzen edo garbitasun lanetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 699 09 46 26

Debagoiena. Bertako neska nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Egunez zein gauzez. Disponibilitate osoa. Esperientzia. 618 00 08 28

Debagoiena. Emakume esperientziaduna gertu garbitasun lanetan jarduteko. Deitu 695 58 88 63 telefonora.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketarako edo etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Hamar urteko esperientziaduna. Deitu 646 78 81 40 telefono zenbakira

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunirik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoko argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketarako. Tituluduna. 680 77 06 46

Debagoiena. Emakumea gertu orduko edo astebukaeratan pertsona nagusiak zaintzeko, baita ospitalean ere. Tabernak ere garbituko nituzke. Disponibilitate osoa. 699 60 91 90

